



Udaberrirako eskaintza zabala UEUn



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2.
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

EIBAR



Eibarko inguru onenean bizi nahi duzu?

Gela bateko apartamentuak 180.000 €-tik

Gela biko etxebizitzak 260.000 €-tik

Ordainketarako erosotasuna eta zure etxebizitza saltzeko konponbidearekin

INFORMAZIOA
ETA SALMENTA

Egogain kalea
(Autobus geltokiaren
ondoan)

943 20 21 99


LANDU
Financiak



Euskara Elkarteak

ARGITARRATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

UEU

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

(...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kostatzen zaigu, ez dugu gaztearen bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gaitza eta berakatzatza berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

DRAUI.- Onomatopeia. Derrepentekua eta gogorra, indarra aitzen emateko.

DRAUN.- Elizako kanpai nagusia, baita kanpai horrekin egiten zen deia. Onomatopeia dirudi.

"*Draunak bi dira kanpaitorrian*".

DRI-DRA.- Gauza bat azkar egin edo erabakitzen dela adierazten duen onomatopeia. "*Dri-dra, ez goiaz gehixago itxaintzera, eta guazten hamendik*".

IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

KALEETAN KANTUZ EIBARREN

Badira urte batzuk Baiona eta Miarritzen kaleetan kantuan ateratzeko lehenengo ekimenak martxan jarri zirela. Helburua euskara eta euskal kultura kalera ateratzea, eta euskal kantu ondare aberatsarekin publikoan kanta-zeko plazerra eta ohitura berreskuratzea.

2003. urtean Donostian hasi ziren kaleetan kantuan. Euskaldunon Egunkaria itxi berri zuten, eta elkartasuna adierazteko antolatuta zuten Donostia Kantuz. Orduetik hileroko atera da, eta egunotan bost urte bete ditu. Ondoren honek zabaltzen jarraitu du: Hondarribia, Errenteria, Ordizia, Deba, Lizarra... Herri askotan euskara elkarteak izan dira ekimena antolatzeko ardura hartu dutenak. Ermuan ere horrelaxe gertatu da. Joan den azaroaren 24an abiatu da Ermuan Kantuan.

Orain urte terdi, Donostia Kantuz ezagutzen zuten eibartar batzuk Eibarrera ekartzeko ahalegina egin zuten. Helburu nagusien artean euskara sustatzea zegoela ikusita eta beste herri batzuetan euskara elkarteek antolatzen zutelarik ikusita ...eta kitto! Euskara Elkartera jo zuten proposamenarekin. Baina ...eta kitto!k ez zuen ekimena bere gain hartu eta ahaleginak ez zuen aurrera egin.

Azken hilabeteotan Debabarrenako Esperientzia Eskolaren inguruan sortutako lkaisten taldeak hartu du proiektua aurrera eramateko ardura eta bai egin ere. Antolaketan ona, zuzendari egokia, laguntzeko prest dauden musikariak... Egutegia, ensaioak eta irteerak antolatu dira. Emaizta ere oso ona izan da, jende askok parte hartu du eta giro ona izan da.

Azaldu dugunez Kaleetan Kantuz orain arte gauzatu den herrietan euskara izan da helburu nagusia kantua kalera ateratzearrekin batera. Ondorioz euskaraz kantatu da. Horrek ez du esan nahi euskaraz ez dakitenek ez dutenik parte hartu. Are gehiago, euskaraz ez dakitenak, edo euskaraz hitzegiteko ohitura ez dutenak ere euskaraz eta euskararen inguruan bildu, elkartu eta kantuan jartzeko balio izan du. Kaleetan Kantuz-en hasierako espirituari erantzunez Eibarren ere euskara hutsez abesteko proposamena egin nahi dugu.

Aran Ugarte

INDEPENDENTZIAREN ALDE, ABSTENTZIOA!!

Euskal Herrian bizi dugun defizit demokratikoa eta eskubide bortxaketa oso larria da. Egoera honek izen bat du: Salbuespen egoera. Eta helburu argia du: Euskal Herria aldaketa politikoaren atarian dagoen honetan, euskal independentismoarekin amaiztea.

Honetarako, Espainiako estatuak errepresioaren bidea aukeratu du; alderdi politikoak ilegalizatuz, zuzendaritza politikoak espetxeratuz, euskal gazteria atxilotuz eta torturatuz, edo eta gizarte mugimenduak kriminalizatuz. Eta hori guztia ez litzateke posible erregionalisten erabateko laguntzarik gabe.

Euskal Herriak ezin du hauteskunde antidemokratikoen pantomima honetan parte hartu.

Aurrera egiteko ordua da, independentziarako garaiak dira, Euskal Herriaren ordua da. Horregatik aurrerako eta abertzale orori **abstentzioa**ren aldeko hautua egiteko dei berezia luzatzen dizuegu:

- Salbuespen egoerari, atxilotetei, ilegalizazioei, torturari... **Stop!** Esateko, **abstentzioa**.

- Estatu faxista batek antolatuta dituen hauteskunde batzuen aurrean, **abstentzioa**.

- Lurraldetasuna eta erabakitze eskubidearen alde, **abstentzioa**.


- Independentzia eta Euskal estatua sortzea ahalbideratu dezakeen Marko Demokratikoaren alde, **abstentzioa**.

- Benetako aldaketa politiko baten alde eta iruzur berri baten aurka, **abstentzioa**.

Gaurko abstentzioa bilharko zure burmea da.

Martxoaren 9an zuk erabakitzen duzue: abstentzioa.


Eibarko Ezker Abertzalea



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria



Kosovo eta konparaziñuak

Kosovoren independen-tzixak majo astindu dit-tu baztarrak: batzuk alde eta beste batzuk kontra. Aldekuen artian mendebaldeko potentzixak, estatu Batuak buru dirala, eta, jakin-ña, iñoiz burujabetza lortuko daben esperantza galdu ez daben estaturik bako naziñuak. Kontra, Errusia, Serbia eta Espaiña nabarmendu dira. Aldekuak diñue Kosovok merezi ebala independen-tzixa Serbiak egindako genozidiuaren ostian. Kon-trakuak, nazioarteko legia haustia dala, Kosovorenak beste hainbat herriren independen-tzixa-eskaerak eka-rriko dittuala. Dana dala, bai batzuk, bai bestiak gauza batian bat etorri dira: Kosovokua aparteko auzixa dala eta ezin leikiala beste iñon-go auturekin konparau. Horretan batez be Espaiñiako agintarixak eta alderdixak nabarmendu dira: ezer gal-detu aurretik, danak hasi dira Kosovokuak ez dakala iñungo zerikusirik ez Kata-luñarekin ezta, (horixe bihar genduan!) Euskal Herrixarekin be. 90.eko hamarkadan Balkanetan izan diran tris-kantzak nazionalismuaren kontra, batez be abertzalien kontra, iñun diranak esateko erabilli dittuenak oiñ diñue ez dakala zerikusirik. Eukiko ez dau, ba zerikusirik! Balkanetan eta gure inguruan herri txixixen independen-tzianahixen kontra jardun daben herri zapaltzailliak dagoz: Yugoslavia al-dian, Serbia. Hemengua jakitzeko serbiarrak Kosovoren indepen-tzixaren kontra protes-tatzeko manifestaziñuetan darabixen hiru banderak ikustia baiño ez dago: Gre-ziakua, Serbiakua eta... Espaiñiakua.

Juan Andres Argoitia

Makina-Erreminta astelehenetik BEC-en

Martxoaren 3tik 8ra arte egongo da martxan estatu mailako Makina-Erreminta Bienala Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre-n (BEC). 36 herrialdetako 1.761 firmak hartuko du parte aurten ospatuko den 25. edizioan, sei pabilioi beteko dituzten 788 postutan banatuta. Azken urteotan BEC-en egiten den azoka hau estatu mailako garrantzitsuena da sektorean, bigarren Europa mailan egiten diren artean eta laugarrena mundu mailakoen artean. Azokan parte hartuko duten firmen jatorriari begiratuta, 1.004 atzerritarrek izango dira.



Sektoreko profesionali begira antolatutako azoka bisitatzeko 57.300 lagunek eman du izena, baina aurreko edizioetako asistentzia marka guztiak haustea aurreikusten dute an-

tolatzaileek, Espainiako Heziketa Profesionaleko ikastetxe-etako azken kurtsoko ikasleen eta beste 7.000 unibertsita-ikasleren bisitak espero baitituzte.

Debabarrena Integra-Bat Eginez programa

Armeria Eskolak, Eibarko eta Ermuko Udalek, Debegesak eta Eibarko eta Ermuko Helduen Heziketarako Zentruak 16 urte-



Armeria Eskolan aurretik ere egin izan dira etorkinak trebatzeko ikastaro bereziak.

tik gorako eskualdeko etorkinen integrazio laborala eta profesionala bultzatzea helburutzat duen Debabarrena Integra-Bat Eginez programa jarri dute martxan. Programak helburu bikoitza du: alde batetik, etorkinen integrazio laborala eta profesionala lortzea. Eta, bestetik, Debabarreneko eskualdean bete gabe gelditzen diren industria arloko hainbat lanpostu betetzea. Programaren barruan hainbat pausu jarraituko dira: hasieran ikasleek gaztelarazko klaseak hartuko dituzte (hala behar izanez gero) Helduendako Heziketa Zentruan, 160 bat ordu guztira. Ondoren Armeria Eskolara pasatuko dira eta han Mekanizatuko eta CNC Tornu/Fresadora Operarioa ikastaroa egiteko aukera izango dute (380 ordu).

Mariasun Gartzia Aralar-eko zinegotzi berria

Astlehenean egin zen Udalbatzan Mariasun Gartzia Ezken Batua-Aralar taldeko zinegotzi izendatu zuten, Aralar ordezkaten. Orain hilabete batzuk talde bereko Aitor Barojak bere dimisioarekin lagatako hutsunea betetzera dator Gartzia. Barojak kargua lagatzeko erabakia hartu zuen zinegotzi kargua bere la-

narekin bateratzeko arazoak zituelako. Zinegotzi izendatu-berriak Pertsonal Komisioan hartuko du parte eta hainbat aholkulari batzordetako kide izango da. Udaleko plenoan egindako lehenengo interbentzioan, EAE-ANV taldeak aurkeztutako mozioaren aldeko botoa eman zuen zinegotzi bakarra izan zen Aralarrerako ordezkaria.

Sentsibilizaziorako sormen-tailerra

Aurreko barixaku eta zapatuan sentsibilizaziorako sormen tailerra egin zen Isasiko La Salle ikastetxean, Eibarko Elkarkidetza Mahaia eta Euskadiko GKE-en eskutik eta Udalak eta Foru Aldundiak lagunduta. Tailerrean Gobernu Kanpoko Erakundeen arloan lan egiten duten hainbat kidek hartu zuen parte.



autuan

GURASOENDAKO HITZALDIA BERTAN BEHERA

Udalaren Gurasoak Martxan hitzaldi-sortaren barruan datorren egunerako, martxoaren 6rako programaturako saioa bertan behera geratu dela jakinarazi dute antolatzaileek. Hitzaldia arazoak ematen dituzten kontsumoen prebentzioaren ingurukoak izan behar zen.

EAE-ANV-REN MOZIOA ATZERA

Eibarko EAE-ANV taldeak astelehenero Udaleko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko aurkeztu zuen mozioa atzera bota zuten plenoan. Mozioak jasotako aldeko boto bakarrak EB-Aralar taldeko ordezkariena izan zen, eta horiek mozioaren lehenengo puntu biekini bakarrik zeuden ados. Bestalde, Eibarko ezker abertzaleak gaur ekitaldia deitu du Untzagan, 20.15etarako, abstentzioaren aldeko aldarrikapena egiteko. Ondoren, 21.30etan abstentzioaren aldeko afaria egingo dute Montekasino taberna (txartelak bertan salgai daude).

ETXEBIZITZA TASATUAK

Lopezenguan, Saratsuegin eta Arrate Biden banaturako dituzten 20 etxebizitza tasatuetako zozketan parte hartzeko eskaera aurkezteko epea luzatu du Udalak, Etxebiden izena emanda ez dutenentzat. Epea berez otsailaren 7an amaitzeko bazen ere, martxoaren 18ra arte aurkeztu ahal izango dira eskaerak Pegoran.



Instrukzio liburua

Ordenagailuaren aurrean nagoela, zera datorkit burura: zerbait aparatu dugun inguruan gaur egun. Batzuk mesedegarriki bihurtu zaizkigu. Beste batzuk buruko minak ere ematen dizkigute. Baina hala nola, uste baina teknoadikto gehiago dago (edo gaude). Eta traste guzti hauekin batera, zer daukagu? Instrukzio liburua. Bai, bai, aparatuarekin batera datorren libretatxo hori. Batzuk pentsatuko dute hobe izango litzatekeela aurikularrak edo beste gehigarrien bat sartu izango balute kaxan. Eta horrela gabilta.

Egun hauetan Antzerki Jardunaldiak bizi ditugu Eibarren. Ahal dudanean gustukoa dut telefonoa itzali eta ordubetez dena ahaztea, obraren bat ikusteko. Baina mobilarekin keinu txiki hori egitea zailegia da batzuentzat. Biarritz Balleta ikustera joan nintzen eta mobilak itzaltzeko eskatu zutenean, azken orduan, aurrean jarrita zegoen andrak berea itzaltzeko saiakera egin zuen. Ezin. Horrela egon zen atsedenera arte, eskerrak deirik izan ez zuela. Egun batzuk geroago, bi musikatxo desberdin Coliseoko obra baten bitartean. Mobilan musikatxoa eta publikoaren "murmur" a. Hori ikusita, zera pentsatu nuen: beste antzoki batzuetan txamarrek uzteko lekua egoten den bezala, telefonoak gordetzeko zerbitzu bat jarri beharko da martxan? Horrela, bere telefonoa itzaltzen ez dakiten edo itzalduta nahi ez dutenengatik ez genuke horrelako lotsarik pasatuko. Baina beti geratuko dira hirugarren taldekoak, "ai, ahaztu zait" taldekoak. Ezta?

Felix Morquecho
(KAZETARIA)

Kanada eta AEB-tako enpresariak bisitan

Eguazten arratsaldean Kanada eta Amerikako Estatu Batuetako 12 enpresari osatutako ordezkari Armeria Eskolan eta Teknikerren bisitan izan zen. Delegazioa egunotan Euskadi eta Nafarroan dabil bisitan, energia berriztagarriak (bereziki eolikoa) sortu eta aprobetxatzeko puntako teknologia bertatik bertara ezagutzeko asmoarekin. Delegazioa osatzen duten kideen artean, Therry Paul Kanadako komunitate indigenaren ardu-



Julian Egizabal -bigarrena ezkerretik hasita- eta beste bisitariak Armeria Eskolako sarreran.

radun nagusia eta Kanadako gobernu kidea eta Jeffrey Mullen, hau ere gobernu kidea daude. Bisita horretarako bidea Julian Egizabal eibartarrak zabaldu du. Egizabalen

Ipar Amerikako hainbat enpresarekin harreman estua dauka eta, horrez gain, Armeria Eskola orain ia 100 urte sortu zuen Julian Etxeberriaren biloba ere bada.

Elkartek diruz laguntzeko eskaera-epea zabalik

Udaleko Kultura eta Euskera batzordeak, urteroko moduan, herriko elkarteei diru laguntzak emango dizkie, horretarako eskaera garaz aurkeztu eta Udalak ipinitako baldintzak betez gero. Hitzarmenean jasotako be-

te-beharreko baldintzak hauek dira: eskaera egin duen erakundeak helbidea Eibarren edukitzea, jarduera edo egitaraua bertan garatzea, diru irabazi asmorik ez izatea eta lege aldetik entitateak edo erakundeak izatea (Elkarteen erregistroan inskribatuta egotea). Horrez gain, kultura alorrean burutu dituzten ekintzek bete beharreko ezaugarriak hauek dira: azken 5 urteotan lanean etengabe jardundakoa izatea; urteko ohiko programazioa edukitzea, hileroko zerbait egitea edo bestela tailer, elkarte edo Batzorde finkoak edukitzea; jarduera puntualak egitea, egun jakinetakoak, baina herriaren kultura ikuspegiari begira interes handikoak direnak. Gastuen aurrekontu osoa 9.000 eurotik gorakoa izatea eskatzen dute. Eskaerak Pegoran aurkeztu behar dira, martxoaren 25era arte.




LEIRE ITURBE

Lagun artean elkarteko kideak urtero urtarrilean egiten duten ikuskizunean.

ORAIN DELA

10 urte

1998-III-6
227. ZKIA.



Etorkizuna
euskaraz dator



Matsarixako 7. eta 9. zenbakixak bota ziran.



Salas misioneruak Paraguayo esperientzia kontau zeban.

- 12 urtetik 16ra arteko ikasle gutxiem artiam, B eredu ebebidumiam D ereduam baino 13 ikasle gehiago ziran-duten. Halanda ba, Haur Heskuntzian, 2tik 6 urtera-ko tartiam, sustera hutsako ereduam zara gutxi magusi.
- Jose Luis Salas misioneruak Eibarko sustraiak Paraguyan topan nithala esan zeskun. Askapemerako To lojiamen magimenduko partaidiak 22 urte zaramam kan eta mesia garamiz emotan zabalda esan zeskun.
- Luis Fernandez eibartarrak "Espainiako Gerra Zibil-lla Euskal Herrian" liburua kaleratu zaban, Jusu Tuska historia irakastarakin alkarlamiam. Auker-pemiam Otxabina eta Alberto Lizaralde zara zaram.
- Trantxaralako 111 garajien zerkatia esin zara, 178 es-kaibailien artiam. Garajien prezisa 21 millia pesetatik 3 millia pesetara arteka zara zaram. Bes-ke 200 garajietarako, 120 kontratu sinatu zaram.

Aiton-amonak eta bilobak ipuin idazle

Ermuko Lobiano Jauregian banatu zituzten aurre-ko astean Debegeak antolatutako Aiton-amonak eta Biloben Arteko Ipuin Lehiaketako lehen eta bigarren sariak. Eskolabari ikastetxeko Garikoitz Lamariano Elgeta eta bere amama biak, Sesi eta Visi, izan dira garaileak, 'El Payaso Colorino' ipuinarekin. Donostiako Aquarium-erako eta Zientziaren Kutxagunerako bina sarrera jaso zituzten. Bigarren saria, berriz, ikastetxe bereko Imanol Sanchez Abendibar eta bere aitona Albertorentzat izan da, 'Gordi' ipuinarekin. Hauek Igeldoko Jolas Parkean ibiltzeko txartel bi jaso zituzten. Sariak Debarreneneko Esperientzia Eskolako Gemma Atxak banatu zituen, Esperientzia Eskolako kideak izan baitira epaileak. ere, antzeko ekimenak antolatzeko ilusio betez daudela aitortu dute.



Garikoitz Lamariano Elgeta eta bere amama biak, Sesi eta Visi, ipuin lehiaketako irabazle.



SILBIA HERNANDEZ

Urzeri omenaldi hunkigarria Kalamuan

Otsailaren 1ean Hiru Errege-
en Mahaian hil zen Asier
Urzelai mendizaleari Kala-
muan eskaini zioten azken agurra
haren familiak eta lagunek zapatu
goizean, jende asko bildu zuen eki-
taldi hunkigarrian. Omenaldia ze-
laian izan zen eta, besteak beste txal-
apartariak, bertsolari batek eta dan-
tzariak hartu zuten parte. Ondoren,

gaztearen errausak Kalamuako pun-
tan zabaldu zituzten eta, amaitzeko,
famiak landatutako zuhaitzaren al-
damenean lora batzuk ipini zituzten.
Gaztearen familiak lerro hauen bitar-
tez eskerrak eman nahi dizkie ome-
naldira joan ziren guztiei eta modu
beregian eskertu nahi diete egindako
lana omenaldia antolatzen ibili ziren
Asierren lagunei.

Elkartasunaren Astea La Sallen

Martxoaren lehenengo aste
bietan, urteroko moduan,
PROEGAKO kanpaina ga-
ratuko dute Isasiko eta Azitaingo La
Salle ikastetxeetan. Kanpainaren ar-
duradunek azaldu dutenez, "aur-
tengo herrialde hartzailea Bolivia
izango da eta Udalak emandako di-

ru-laguntazari esker han proiektua
martxan ipiniko dugu". Ekintza na-
gusi bi antolatu dituzte: Isasin mar-
txoaren 13an izango da elkartasun
ospakizuna eta Azitainen, berriz,
martxoaren 14an gelan landutako
gaien araberrako elkartasun jokoak
egingo dituzte.

Txontako proiektuan "irregulartasunak" salatu ditte ezker abertzaliak

Eibarko ezker abertzaleko ordezkariak Txontarako daguan proiektuaren gaiñian emon diran azken aldaketak azaltzeko prentsurrekua emon eben gaur astebete. EAE-ANV alderdikak kaleratzen dabenean Stop Eibar aldizkarixan jaso dittue proiektuaren inguruko guztiak: azalian, 'Kontuak ilun Txontan' izenburuko artikuluan Udalak eta Amenabar promotoraren arteko hitzarmenaren ondorixuak jaso dittue. Barruko orrixetan, barriz, euren iritzixaren aldamenian Juan Luis Tuerosak, La Plazoleta alkarteko ordezkari gisa idatzitakua dago eta azken orrixan, barriz, Urkizuko dorrietako obrak dittue hizpide.

Udala eta Amenabarren arteko hitzarmena

Irene Zarrauak azaldutakuari jarraituta, "proiektuan aldaketa nahiko inportantiak" emon dira. Bestiak beste, lehenago aurreikusitta ez eguaz 500 etxebizitza kontzertatu egitteko asmua dakela azaldu eben. Horri jarraituta, EAEko ordezkariak ez dittue kontuak bape argi ikusten: "Txontako bizilagunak '0 kostua' eskatzen dihardue hasieratik eta Udalak hori eziñezkua zala esan eban, proiektuaren inbiabilidadia aitzakitatz hartuta. PSOEren arabera, bizila-

gunak 2'5 millioi pezeta ordaindu biharko dabe etxe barrixaren truke. Txontan bizi diranen arabera, barriz, 6 millioi baiño gehixago izango dira. Bixen artian kopuru bat ipiñi dogu geuk: etxe bakotxagaittik 4 millioi ordainduta, eta kontuan izanda 200 bat etxebizitza daguzela auzuan, 800 bat millioi pezetarekin konpontzen da bizilaguna eskatzen dabenean '0 kostuaren' gaixa, baiña Udalak ekonomikoki hori eziñezkua dala diño. Baiña proiektuan emondako azken aldaketari jarraituta, 500 etxebizitza kontzertatu egingo dira oin, librien prezio erdixan saltzeko (35 bat millioitan). Promotoriak legiak agintzen dabenean %19 'bakarrik' irabaziko baleu, lehen baiño 3.000 millioi pezeta gitixago jasoko litzuzke holan eta, halanda be, proiektuak errentagarria izaten segitzen dau euren arabera".

'0 kostua' zillegi

Horren aurrian "iruzur argixa" ikusten dabe eta auzi horretan "hasieratik irregulartasunak" egon dirala salatu eben prentsurrekuan. Horrez gain, aurreikusitta daguan protekziñoeko etxebizitza kopurua "lotsagarria" dala pentsatzen dabe. Bestalde, auzokuen bizi kalidadiari garrantzixa emon nahi detse: auzuan 1.000 bat etxebizitza egittia aurreikusitta badago be, ez ei dabe kontuan hartu horrek berarekin ekarriko dittuan ondorixuak (oin baiño automobil gehixago ibiltzia, bestiak beste). Zerbitzuen aldeko apustua egin dabenean Udalarri Txontarako zerbitzurik ez aurreikusitta leporatzen detse. Eta bizilagunak eskatzen dabenean '0 kostua' zillegi dala pentsatzen dabe.



SILBIA HERNANDEZ

Urkizun arazuak izan dira obrekien.

Emilio Aiastuik, bestalde, Txontaren regeneraziñua bera Udalean egon zaneke sa-soiko kontua dala gogoratu eban: "Bere egunian geuk planteau genduan Txonta birgaitzia, ez auzorako proiektu gisa, baizik eta Eibar osorako proiektu modura eta protekziñoeko etxiak sortzeko aukera gisa. Gure proposamenian bizilagunak ez eben zertan kalterik jasan. Baiña oingo proiektuan emondako azken aldaketa larregizkua da, herrixari barre egitten dihardue".

"Urkizuko txapuzak"

Prensurrekua ardatza Txontako auzia izan zan, baiña Urkizuko dorrietako obreri tartia be eskindu zetsen: "Akats txixak azaltzia normala da, baiña ura bideratzeko kanaloirik ez jartzia ez da bape normala. Lokaletan ura sartzen jakue, ipiñi dittuen balastraden izkiñak oso zorrotzak dira, umiak hankak edo eskuak sartzeko moduko tartez beteta dagoz, toki batzutan lurra behin baiño gehixagotan jaso dabe...". Horrelako obra batian, "logikuena auzokidiak osatutako jarraipen-batzorde bat eratzia" zala gaiñeratu eben eta horrelakuak "Udalak politika partehartzailerik ez dabelako aplikatzen" pasatzen dirala salatu nahi izan eben.



SILBIA HERNANDEZ

Aurreko barixakuan eman zebene prentsurrekua ezker abertzaleko ordezkariak.

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com



MEKANIKETARAKO
TRESNAK

SPK- Zeramika, silizioa

ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak

ROY - Diamante eta boraxezko harriak

Garitano

1957an sortua
GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako TARTAK

Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

“Lotsagarriak diren gatazka armatu asko dago munduan”

Nazioarteko Harremanetan aditua da Gabirel Ezkurdia. UEU-k Markeskuan duen egoitzan nazioarteko gai ezberdinez klaseak ematen ditu eta otsailaren 21ean Debabarrenako Esperientzia Eskolak antolatuta hitzaldia eskaini zuen Eibarren. Gainera, ETB 2-ko ‘Pasalo’ saioan berbalari bezala aritzen da.

- Raul Castrok bere anal Fldelen lekua hartu du Kubako lehendakaritzan. Aldaketarik somatuko da herrialdean botere aldaketa honekin?

Kuban gauzak etengabe aldatzen dira, gauza da guk daukagun ikuspegia mende baldekoa dela, alde batekoa. Pentsamendu bakarrarekin aztertzen dugu egoera, horrela, pentsatzen dugu han diktadura bat dagoela, politikariek inolako loturarik ez duen herri zapaldu bat dagoela eta abar. Baina errealitatea beste bat da. Nik uste dut Kuban aldaketak etengabeak izan direla azken hamarkadetan, uste dut herriaren gehiengoak iraultzarekin bat egiten duela eta uste dut sistema demokratikoa beste era batean eraikitzen dutela. Horrela, mendebaldeko ikuspegi batetik ez dut uste aldaketarik egongo denik; baina ikuspegi soziologiko, politologiko eta dinamiko batetik bai, Raulek eta alderdi komunistako talde gorenak erronka handiak ditzutelako, eta erronka horiek dira XXI. mendean sozialismoa edukitzea mendebaldeko potentziek ezartzen duten logikatik kanpo.

- Txinak Joko Olinpikoak antolatzen ditu aurten. Herrialde honen irudia garbitzeko altzakia dela uste duzu?

Txinak bere barneko egitura konplexua zuritu nahi du horrelako ekimenekin. Txi-

nan askotan giza eskubideetatik bakarrik hitz egiten da, baina ez da asko berba egiten beste faktore batzuetaz, langileen baldintzetaz eta zein gizarte eredu garatzen ari diren (kapitalismoa basatienean oinarritzen den herrialdea delako), adibidez.

- Joko Olinpikoez gain, munduak bere begiak beste leku batean ditu aurten: Estatu Batuetako-ko hauteskundeetan. Nola ikusten dituzu?

EEBB-ko hauteskundeak beste zirko handi bat dira. Nik ez dut uste hor dauden politikarien artean ezberdintasun handiegirik dagoenik. Ez dut esan nahi berdinarik direnik, baina kontuan eduki behar dugu sistema ez dela inoiz kolokan jartzen. Ez dut uste Clintonek edo Obamak aukera handirik izango dutenik politika sakonak egin ahal izateko, azken finean, EEBB-ko presidentea beti delako zenbait lobbyren morroi bat.

- Kosovok Independentzia lortu zuen otsailaren 17an. Aurrekarik bat sortzen dela uste duzu?

Noski baietz. Horregaitik dago estatu espainiarra hain urduri. Nik uste dut Kosovak independentzia behar duela, nahi duela eta, gainera, askotan adierazi dudana da, historikoki independentzia zor zaiela, eskubide historiko hori izan dutelako, Euskaldun eta Nafarrek daukagun bezala. Gainera, kontestu berezi



batean kokatzen da. Izan ere, datozen urteetan Eskoziak, Flandek eta beste nazio batzuek estaturako bidea hartuko dute. Kosovak erakutsi duen elementu garrantzitsua bat da herriaren gehiengo baten borondate bat garatu nahi baldin badu posible duela.

- Hedabideek eragin handia daukate iritzi publikoan. Manipulazioa jasaten dugu nazioartean gertatzen diren gauzen gainean?

Noski. Manipulazioa, desinformazioa eta informazio uholdea. Azken finean, helburua da gizartea narkotizatuta egotea eta irizpide argirik gabe. Ondorioz, bakoitzak bere bizitza egingo du, bere kontsumo-tasa mantenduko du eta narkotizazio horrekin lortzen da mendebaldeko gizartean determinaziorik gabeko egoerak suertatzea. Gu gara historian informazio gehiena eskuratu ahal izan dugun gizartea, baina informazio uholdeek jendea bete eta ito egiten dituzte.

- Gatazka armatu ahaztu asko dago munduan?

Bai, badago zenbait gatazka eta zenbait istoria momentu honetan ez dutenak pisu espezifikorik, baina lotsagarriak direnak. Adibidez, Sahara ahaztuta dago, ustel-

tzen, eta lotsagarria da demokratikotzat hartu behar duten estatuak duten jarrera kasu honekiko. Eta Sahara bezala, ezin ditugu ahaztu herri txiki asko benetan genozidio itzelak jasan dituztenak, adibidez Txetxenia.

- Terrorismoaz hainbeste berba egiten den garal hauetan, zergatik ez da la alpatzen estatu-terrorismoa?

Lehen aipatu dugunagaitik. Komunikabideen papera oso zehatza eta argia da, horrela, jendea narkotizatuta egotea eta berriak ikuspegi sentsazionalista batetik aurkeztea nahi dituzte. Terrorismoa existitzen da, baina gauza bat da ekintza terroristak talde batek burutzea, eta beste gauza bat da estatu baten estrategia eta taktika osoa terrorismoan oinarritzea. Askatasuna berekin bezala, nahastu egiten da terrorismo berba eta terroristatzat hartzen dute pentsamendu zuzenaren aurka doan edozein gauza. Horrela, berdinar zaie Al-Qaeda, beste talderen bat edo Greenpeace. Azken honek zenbait potentzien interesak kolokan jartzeko boterea baldin badu, terroristatzat hartua ahal izango litzateke.



CENTRO MEDICO EIBAR

INKORPORAZIO BERRIAK:

- FOTODEPILAZIO UNITATEA, IPL LASERRAREKIN
- FOTOGAZTETZEA
- DOANEKO DIAGNOSTIKOA
ETA NEURRIKO FINANTZIAZIOA

Unitate berri hau martxan ipini dugula-eta,
Eibar Osasundegian %10eko deskontua
eskaintzen dizuegu otsailaren amaierara arte.

Urkizu Pasealekua, 13
Tlfn. 943.120.200

J. Etxeberria, 13
Tfnoa.
943 700 230

L
A
S
T
E
R
R


Z
A
B
A
L
I
K



Susana

Lorea

Patricia



UNIVERSITY of CAMBRIDGE ESOL Examinations

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

AZTERKETAK EIBARREN eta DURANGON

AZTERKETAK ETA DATAK:

<i>Starters (azterketa osoa)</i>	LARUNBATA	Maiatzak 31
<i>Movers (azterketa osoa)</i>	LARUNBATA	Maiatzak 31
<i>Flyers (azterketa osoa)</i>	LARUNBATA	Maiatzak 31
<i>K.E.T. (Papers 1,2)</i>	LARUNBATA	Ekainak 7
<i>K.E.T. (Papers 3)</i>	LARUNBATA	Maiatzak 31
<i>P.E.T. (Papers 1,2)</i>	LARUNBATA	Ekainak 7
<i>P.E.T. (Papers 3)</i>	LARUNBATA	Maiatzak 31
<i>F.C.E. (Papers 1,2,3)</i>	LARUNBATA	Ekainak 14
<i>F.C.E. (Papers 4,5)</i>	LARUNBATA	Maiatzak 31
<i>C.A.E. (Papers 1,2,3)</i>	ASTEAZKENA	Ekainak 11
<i>C.A.E. (Papers 4,5)</i>	LARUNBATA	Maiatzak 31
<i>C.P.E. (Papers 1,2,3)</i>	OSTEGUNA	Ekainak 12
<i>C.P.E. (Papers 4,5)</i>	LARUNBATA	Maiatzak 31
<i>B.E.C. Preliminary (azterketa osoa)</i>	OSTEGUNA	Ekainak 5
<i>B.E.C. 2 Vantage (azterketa osoa)</i>	OSTIRALA	Ekainak 6
<i>B.E.C. 3 Higher (azterketa osoa)</i>	ASTEAZKENA	Ekainak 4

MATRIKULAK: Martxoaren 14ra arte

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK:

<u>ARRASATE:</u>	Parlance Mondragon Lingua	943 77 06 83 943 71 20 55
<u>BERGARA:</u>	Espolon School of English	943 76 03 53
<u>EIBAR:</u>	Anglo-American Link Idiomas	943 20 64 57 943 20 39 59
<u>ERMUA:</u>	Akerlei	943 17 66 32
<u>ELGOIBAR:</u>	Kensington School of English Key Academia de Inglés	943 74 02 36 943 74 30 44
<u>ONATI:</u>	Mondragon Lingua	943 71 60 00
<u>ONDARROA:</u>	Howdy	94 683 23 79
<u>DEBA:</u>	Akabi	943 19 16 79
<u>DURANGO:</u>	San Jose Maristak	94 681 00 58
<u>MENDARO:</u>	Akabi	943 75 50 55
<u>BERRIZ:</u>	Speak up	94 622 52 94
<u>ZUMAIA:</u>	Golden Gate	943 86 50 20
<u>AZKOITIA:</u>	Irving	943 30 83 81
<u>MUTRIKU:</u>	Gozog	943 60 43 58



Hauteskunde orokorren atarixan promesak, borondatiak eta bestelako hitz-ematiak eguneroko gauzia dira. Batak etxebizitzaren arazua konponduko dabela, bestiak berakin ez dala terrorismorik egongo, etorkiñen sarrerria zorrotz kontrolauroko dabela azken batek. Adin penala jaistiaz be arittu dira hauteskunde orokor hauetara aurkezten diran hautagaixak. Mariano Rajoy PP-ko hautagai nagusixak egin zeban

lelengo proposamena: adin penala 12 urtera jaistia. Holan, PP-ko hautagaixak hauteskundiak irabazi eta Moncloan bere egoitzia ipintzen badau, 6 urte jaitsiko zan adin penala, 18 urtetik 12ra. Proposamena bultzatu daben politikarixak aittatzen dau ez dala momentuan burura etorrittako gauza bat, "beharrizan sozial" bat dala esaten dau. Beste aldian, barriz, kontrakuan, esaten da neurri honetxekin ezberdintasun sozialak haunditxu egingo zirala, filosofia autoritarixua dakan batek bakarrik proposau leikela holako gauza bat eta, azken fiñian, porrot baten adierazpen bat dala.



Jose Luis Del Rey 49 urte, merkatarixa

Neri begittantzen jata ez dala jaitsi bihar, 18 urtekin be oindiño ez daki-zulako bizitzia ondo zer dan. Holan, gehixago heldutzero itxoin bihar dala uste dot. Gaiñera, nik adin penala jaitsi baiño igo egingo neuke, orain daguan adiña txikixegixa dala begittantzen jatalako.



Idoia Morgado 36 urte, botikarixa

Ba ez dakitt. 12 urtera ipintzia nahi dabela egixa bada, neri begittantzen jata oindiokan oso umiak dirala eta zer egitten daben ez dakixan ume bateri zigor-penala ipintzia gehiegizkua izango zan. Nik oin daguan moduan lagako neuke.



Juan Gómez 48 urte, informatikua

Nik adin nagusittasuna eta adin penala be 16 urtetan ipiñiko nittuan. Neri begittantzen jata pertsona batek kartzelara juateko adin nagusittasuna eduki bihar dabela, 16 urtekin eduki bihar dituala eskubidiak eta betebiharrak.



Sonia Abad 35 urte, bihargiña

Jaitsiko neuke. Halanda be, kasu bakoxta ikusi biharko zan. 18 urte betetzeko orduak falta jakozen bat bere ekintzen arduraduna dala begittantzen jata, holan, kasuak bakarka aztertu biharko ziran. 12 urtekin oindiño pertsoniak heriotza zer dan ez daka argi, holan, 18 eta 12 urteren artian ipiñiko neuke mugia.

Adin penala jaistiaren aldekoa zara?

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurrenoko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Helbide berria

EIBAR

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Anali Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Alergologia
7 Otorrinolaringologia	14 Koloproktologia

Udaberrixan, zortzi ikastaro Markeskuako UEUn

Udako Euskal Unibersidadiak (UEU) udaberrirako ikastaro eskintza zabalara prest dauka aurtengo udaberrirako. Herrixan bertan, Markeskua UEUko egoitza nagusian izango dira ikastaruak, 8 guztira. Betiko moduan, gai anitzetan trebatzeko aukera paregabia eskintzen dabe ikastaruak eta udan etorriko diranendako preparatzen juateko lagungarriak izango jakoz bateri baiño gehixagori. Zortzi ikastaro izango dira guztira, lau atal nagusitan banatuta. Matrikulaziño epia jada zabalik dago eta martxuaren 14ra arte egongo da izena emoteko aukeria.



Jendaurreko komunikaziñua, informatika, hizkuntzalaritza eta teknologixa barrirak eta interes orokorreko gaixak. Lau atal horren inguruan antolatu ditte ikastaruak. Jendaurreko komunikaziñua lantzeko taillarra, berez, taldiekin zein taldien aurrian biharrian jardun bihar dabenendako dago pentsautu, baiña edozei-



ñendako baliagarriak izango dira taillarran landuko diranak: autoestimaren hobetzia, ahotsa, lengoia argi eta garbixa, bestinganako gerturaketa...

Informaziño-uhordia kudeatzen edo gestionatzen ikasteko ikastaruak, barriz, "interneteko tresna askok eskintzen daben sindikaziñua eta, ondorioz, horrek guztiak aukeratu, egoki definitu, filtratu, antolatu eta erabiltzen ikastia" da helburua eta informaziño kudeatzaille edo arduradunendako, marketing arduradunendako eta, orohar, interneti begiratzen detsen enpresa, alkarte edo talde guztien-dako egokixa da.

Informatika munduarekin jarraituta, "web semantikua minuskulaz zer dan ezagutzera emon eta gure ingurua, mikroformatuak, RDFa eta GRDDL gure aplikaziño,

Urte berezixa UEUrendako

Udako Euskal Unibertsitateak Markeskuan egin barri dau urteko batzar nagusixa. Batzarrian, bestiak beste, joan dan urteko balanzia egiñ eta aurtengo urterako programia onartu zittuen. Lore Erriondo UEUko zuzendarixak aurten urte berezixa izango dala aurreratu eban billeran: "Berezixa, batetik UEUko zuzendari bezala azkena izango dalako. Hori dala-eta, esku artian ditudan proiektuak bideratuta laga bihar izango dittut datorrenarendako. Bestetik, Euskal Unibersidadiairen ideia nola mamitzen dan aukeria izango dogu aurten eta horretarako bihar haundixa egin bihar-ko dogu UEUn, proiektu akademiko ahalik eta senduena osat-

tzeko. Horretarako gure bazkide guztien inplikaziñua eta ezagutza biltzen ahaleginduko gara. Hori guztia, jakiña, UEUren gaiñontzeko jardueria albo batera laga barik. Izan be, jarduera akademikua,



argitalpengintza eta IKT arluan ditudun proiektuekin be aurrera egin biharko baitugu. Hori guztia aurrera etartzeko ezinbestekua ikusten dot gure bame egitura sendotu eta gure bame baliabidieri ahalik eta etekin gehixena etartzia". UEUko zuzendarixak azken urtian euskalgintzak eta euskal munduak jasaten diharduen egoeria be hartu eban goguan eta, alkartasuna adieraztiz gain, bidegabekeriaren aurrian biharrian segitze-ko asmua azaldu eban.



Lujuzko eskintza da UEUKua, euskera hutsian eta esku-eskurakua.

webgune edo jarduerari balixo erantsia gehitzeko erabiltzen ikastia" helburu dakan ikastarua preparau dabe.

Teknologia barrixetatik aldendu barik, itzulpengintza automatikuaren nundik norakuak azalduko dittue beste ikastaruetako batian, esparru horren gaur egungo egoerari arreta berezixa eskinduta. Bestalde, eta hizkuntz irakaslien jarduerari begira, ikaslien testuak aztertze lagungarria izango dan ikastarua emongo dabe.

Eta tradiziño akademikotik piskat alden-duta, barreterapia ikastarua, haur kantak eta jolasak ezagutzekua eta aromaterapia eta sendabelarren inguruko beste ikastaro bat prestatu dabe. Lujuzko eskintza, euskera hutsian eta esku-eskura. Gehixago eskatu leike?

Euskal Unibersidadia sortzeko taldian partaide

Nazio Eztabaida Gunearekin eta Kontseiluarekin batera, UEU Euskal Unibersidadia sortzeko sustapen taldeko kidea da, Iruñean hitzarmenari jarraituta. Euskal Unibersidadia "Euskal Herri osuaren garapenaren zerbitzura egongo dan erakunde euskaldun, herritar eta nazional barrixa izango dala" azaldu eben hitzarmena sifatzian eta gaur egun Euskal Herrixan arlo horretan daguan hutsunia betetzia da euren helburua. Azken urtiotan horri buruzko aldarrikapenak egiñ izan dira eta, UEUK bultzatuta, batzorde bat biharrian aritu da. Hortik sortu zan 2006ko uztaillan 'Euskal Unibersitatea' izeneko aurreproiektua. Aurreproiektua

bost oiñarraren gainian idatzitakua da: "Euskaldunon unibersidade eleanitza; euskeraren hizkuntza komunidadia eratzeko eta garatzeko erakundia; gizarte-partaidetzakua, herrixaren zerbitzura eta demokratikua; Euskal Herrixaren eraketa politiko-sozialerako lagungarria; eta Europako unibersidade esparruan homologarria". 2010erako unibersidadia lehelengo pausuak emoteko moduan egotia espero dabe, 8 karrera eskinduta. Gipuzkuan eta Nafarruan kokagune fisiko posibliak aztertzen dihardue eta hurrengo pausua Fundaziñua sortzia litzake. Horretarako eragille sozial, ekonomiko, sindikal eta politikuekin harreman saio zabala egingo dabe.

ikastaruak

- Jendaurreko komunikaziñua lantzeko taillarra

Irakaslia: Gotzon Carcar, 'Coach' pertsonala eta enpresarixua.

Iraupena: 18 ordu.

Noiz: apirillak 5 eta 12 (zapatua), 09.00etatik 14.00etara eta 15.30xetatik 19.30xetara.

Preziua: 117 euro (ikasle eta langabetuak 99'50 euro, UEUKo bazkidiak 74'60 euro).

- Haur kantak eta jolasak

Irakaslia: Itsaso Arrieta, irakaslia.

Iraupena: 10 ordu.

Noiz: maiatzak 6, 8, 13, 15 eta 20,

18.00etatik 20.00etara.

Preziua: 65 euro (ikasle eta langabetuak 55'30 euro, UEUKo bazkidiak 41'40 euro).

- Informaziño uholdia kudeatzen ikasi

Irakaslia: Gorka Julio Hurtado, Informatikan Ingeniari Teknikua, UEUKo kidea.

Iraupena: 12 ordu.

Noiz: apirillak 16 eta 17, 09.00etatik 15.00etara.

Preziua: 78 euro (ikasle eta langabetuak 66'30 euro, UEUKo bazkidiak 49'70 euro).

- www barri baten lehen urratsak

Irakaslia: Gorka Julio Hurtado, Informatikan Ingeniari Teknikua, UEUKo kidea.

Iraupena: 8 ordu.

Noiz: maiatzak 16, 09.30xetatik 19.00etara.

Preziua: 52 euro (ikasle eta langabetuak 44'20 euro, UEUKo bazkidiak 33'20 euro).

- Itzulpengintza automatikuaren nundik norakuak

Irakasliak: Iñaki Alegria, informatikan doktoria eta UEUKo kidea eta Mikel Lersundi, Hizkuntzalaritzan doktoria.

Iraupena: 9 ordu.

Noiz: apirillak 7, 8 eta 10, 16.00etatik 19.00etara.

Preziua: 58'50 euro (ikasle eta langabetuak 49'70 euro, UEUKo bazkidiak 37'30 euro).

MATRIKULAZIÑUA

Martxuaren 14ra arte, www.ueu.org helbidian edo Markeskuan bertan (943821426 telefono zenbakixan). Urteroko moduan, Eibarko Udalak ikastaruetarako diru-laguntzak emongo dittu. Eibarren errolatutakueri matrikularen erdixa pagauko detse Udalak, ikastaruan %85eko asistentzia izanez gero. Eskaeria Pegoran egin bihar da, maiatzaren 30a baiño lehen.

- Hizkuntza Teknologixak ikaslien testuak aztertze

Irakasliak: Montse Maritxalar, informatikarixa EHUn eta UEUKo kidea eta Larraitz Uri, Hizkuntzalarixa EHUn.

Iraupena: 9 ordu.

Noiz: apirillak 21, 22 eta 24,

16.00etatik 19.00etara.

Preziua: 58'50 euro (ikasle eta langabetuak 49'70 euro, UEUKo bazkidiak 37'30 euro).

- Barreterapia

Irakasliak: Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañaga, aktoriak eta UEUKo kidiak.

Iraupena: 15 ordu.

Noiz (aukera bi): astian zihar, **apirillak 2,**

9, 16, 23 eta 30, 17.00etatik 20.00etara

ala zapatuetan, **apirillak 5, 12 eta 19,**

09.00etatik 14.00etara.

Preziua: 97'50 euro (ikasle eta langabetuak 82'90 euro, UEUKo bazkidiak 62'20 euro).

- Aromaterapia eta Sendabelarrak

Irakaslia: Itziar Salegi, Aromaterapien aditua.

Iraupena: 24 ordu.

Noiz: apirillak 1, 8, 15, 22, 29

eta maiatzak 6, 13 eta 20, 17.00etatik

20.00etara.

Preziua: 156 euro (ikasle eta langabetuak 132'60 euro, UEUKo bazkidiak 99'50 euro).

teen-ajeak



*Jesika Mtmex-Alcocer
24 urteko artista
ermuanna da. Bere
lanak ditu ikusgai
Portalean, domeskara
arte. 'Interbentzioa
arretoa' da erakusketa
horren izenburua.*

“Oraindik asko ikasi beharra daukat”

- Zer islatu nahi izan duzu erakusketa honetan?

Espazioan interbentzioa egitea zen nire asmoa, baina, era berean, aurretik Ermuako Lobianon aurkeztu nuen lana ere erakutsi nahi izan nuen. Horrela, alde batetik, Lobianon erakutsi nuen ipini eta, bestetik, interbentzio berarekin espazioa bitan banatu nahi izan nuen.

- Nolakoak dira zure lanak?

Erakusketa honetan azken lau urteotan egin ditudan lanak aurkeztu ditut. Piska bat danetik egiten dut, unibertitatean aurreko urteetan derri gorrez egin behar baitira gau-

za asko, baina era berean hainbat arlo ezberdin lantzen dituzu. Ni eskultura espezializatzen ari naiz eta margolaritza nire kabuz lantzen dut.

- Zeln material erabiltzen dituzu?

Lan grafikoan tintekin egin dut lan (tinta txinatarrak, akrilikoak, iraunkorrak eta abar). Eskulturetan, berriz, birziklatutako materialak ditut; eta interbentzioan iltze, bala-hari, soka eta plastilinarekin dihardut.

- Zure gaztetasuna igartzen da zure lanetan?

Ez dakit. Uste dut oraindik asko ikasi behar dudala, beraz, hori bai igarriko da.

Eskolatik...

Aldi berean ikastea eta lan egitea posible da. Askok euren ikasketa ordaintzeko lan egin behar dute, beste batzuk esperientzia jasotzeko aritzen dira lanean, euren gauzetarako dirua lortzeko besterik ez dute lan egiten beste askok. Gauza da, azken finean, ikasketak eta lan mundua elkarbiztatan egon daitezkeela eta ez soilik bata bestearen atzetik.

Armeria Eskolan, adibidez, ikasketak eta ordaindutako lana uztartzen dituen programa bat jarri da martxan. Ekimen

honen bitartez, Armeria Eskolako heziketa zikloetako ikasleak, ikasten ari diren bitartean Debabarrenako enpresetan euren espezialitatearekin erlazioaturiko jardueretan ordaindutako lana egiteko aukera dute. Horrela, espezialitate ezberdinak 22 ikasle ari dira eskualdeko 13 enpresatan ikasketak lanarekin uztartzen. Programaren helburua nagusia, bestetik, ikasleek lanpostuarekin harreman zuzena izatea da, klaseetan ikasitakoa praktikan jarri eta ordain ekonomikoa jasoz.



Armeria Eskolako Heziketa Zikloetako ikasleentzako aukera da.

HOROSKOPOA

ARIES

Telefonoaren fakturarekin harrutuko zara. Bai, Aries maitea, gehiegi egiten duzu berba mugikorretik eta, gainera, ezer gutxi esateko. Lehen mugikor barik bizi bazinen, zergaitik ez orain? Egin ahalegina. Asmatuko duzu!

TAURUS

Bizitza lasaitasun gehiagorekin hartu ezazu. Ez zaitetz hainbeste estutu eta izan pazientzia gehiago, aste honetan behar izango duzu-eta. Egin kasu esandakoari, bestela txartoegi amaituko duzu astea. Egin kontu!

GEMINI

Nola ikusten duzu etorkizuna? Beltza. Astroek markatzen dute zer gertatuko zaizun eta eurek diotena... ona da! Zorioneko zaudete Gemini, aste ederrak dituzue aurrean! Astelehena izango da zure egun onena aste honetan.

CANCER

Diru kantitate handi bat jasoko duzu martitzen edo eguaztenean. Zulotxo asko tapatu ahal izango duzu diru horrekin eta, ondo ku-deatuz gero, zure aisirako ere erabili ahal izango duzu. Gonbidatu lagunei ere!

LEO

Ez pentsa inoren salbatzailea zarenik. Jendea gai da bere burua aurrera ateratzeko eta ez zaitu hainbeste behar. Besteei arnasa hartzen laga behar diezu eta zuk ere har ezazu denbora piska bat, ito baino lehen.

VIRGO

Batzuetan pozez zorutzen, beste batzuetan oso umore txarrarekin, ez daukazu erdibiderik, Virgo maitea! Astea txarto hasiko duzu, umore txarrez, baina asteburua hurbiltzean gehiago poztuko zara. Gero, geroakoak!

LIBRA

Tabakoa erretzen baduzu, heldu da sasoi behin betiko lagatzeko, eta erretzen ez baduzu, ez erre inoiz! Libra maitea, tabakoarekin etorkizun beltza izango duzula diote astroek, beraz, egin kasu esandakoari.

SCORPIUS

Arazo baten aurrean, alde egitea ez da erabaki onena. Arazoari erre egin behar zaio, gogor erantzun, fronte egin eta, txarto pasatu behar baduzu, txarto pasatu. Tinkotasunez eutsi datozen arazoak. Ez izan oiloa!

SAGITTARIUS

Ez egin akordiorik deabruarekin. Den moduan onartu behar duzu zure burua, ez pentsatu beste era batean hobeto egon zaitzenik. Gehiago baloratu zure burua, horrela ez delako deabruaren faltarik egongo.

CAPRICORNIUS

Abeslari eskasa bazara ere, ez eutsi, ametsak amets dira, eta hori lortzeko edozer gauza egin behar zenuke. Beno, edozer gauza ez, printzipio batzuk izan behar dituzu-eta. Eguaztenean makal sentituko zara.

AQUARIUS

Daukazu irudimenarekin ez duzu idazle izatea pentsatu? Nolako abilezia duzun istorioak asmatzeko, ai ene! Txarrena da, istorio horiek oso gutxi sinisten dutela. Beraz, ez dira hain onak. Berriak pentsatu!

PISCIS

Politika gauzetaz kokoteraino zaudete? Ulegarria da, hauteskunde kanpainak edonor jartzen du kokoteraino. Hala ere, isilik egon, etorkizunean politikarekin zerikusia duen zerbituetan jardungo duzulako zuk zeuk ere!



INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

Honakoa da Eibarko ...*eta kitto!* eta Ermuko *Drogeteniturr* aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun INMOBILIARIEN GEHIGARRIA. Eibar, Ermua eta Mallabian banatuko dugu ale berezi hau.

10.000 ale kaleratuko dira, 35.000 irakurlerendako.

19. zenbakia. 2008ko otsaila

Publizista: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. Diseinua eta maketazioa: Koldo Mitxelena Zumaran.

Tirada: 10.000 ale. Tel. 943 20 67 76. Faxa. 943 20 28 72

EUKI

FINKAK

 323



- **GESTIO INMOBILIARIOA:**
alokairuak,
erosketak,
salmentak,
tasazioak,
kontratuak...
- Galdetu zure
etxebizitzaren
FINANTZIAZORAKO BIDEA:
mailegu
hipotekarioak,
pertsonalak...
- **INFORMAZIO**
PERTSONALIZATUA

Toribio Etxebarria 1
943 20 03 58
Faxa. 943 82 04 03
fincas@euki.com

SIGLO XXI INMOBILIARIA San Bartolome, 16 behea
ELGOIBAR Tel. 943 74 23 06

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Aldatze	85 m ² . Berrizutako behea. 2 log., egong-jang., 2 kom. Kalef. Kanpora. Insonoriz/isolatua.	223.375 €
EIBAR	Saratsuegi	65 m ² . 2 log., egong-jang., suk., 2 kom. Kanpora. Kalef. Garaje. Ganbara. Sartzeko. Berria	258.400 €
EIBAR	P. Arosa	60 m ² . 3 log., egong., suk., kom. Kanpora. Sartzeko moduan.	216.365 €
EIBAR	Isasi	3 log., egong., 2 kom., 2 balkoi. Kanpora. Eraikin berria.	377.435 €
EIBAR	Barrena	91 m ² . 3 log., egong-jang., suk., 2 kom. Kanpora. Kalef. Ganbara. Berria.	295.000 €
EIBAR	Erdialdea	96 m ² . 2 log., egong.-jang., suk.-jang., 2 kom. Kanpora. Kalef. Igogail. Berriztua.	357.600 €
EIBAR	Amaña	64 m ² . 3 log., egong., suk., handia, kom. Kanpora. Kalef. Berriztuta.	222.400 €
EIBAR	Urkizu	80 m ² . 3 log., egong., suk., 2 kom. Trast. Garaje itxia aukeran. Kalef. Eguzk.	342.600 €
EIBAR	Erdialdea	40 m ² . Hall, 1 log., egong-suk. altzariekin, kom. Kanpora. Kalef. Estrenatzeko.	210.350 €
EIBAR	Erdialdea	66 m ² . 3 log. (1 kanpora), egong., egong.-jang., kom. Kalef. Berrizteko.	210.350 €
MENDARO	Azpilgoeta	90 m ² . 3 log., egong., suk., 2 kom. Trast. Terraza (40 m ²). Garage. Kalef. Kanpora	288.500 €
DEBA	Erdialdea	70 m ² . 2 log., egong., suk.-jang., kom. Trastero. Kanpora. Kalef. Berriztua	336.500 €
ELGOIBAR	San Roke	85 m ² . 3 log., egong.-jang., suk., bainua, kom. Kalef. Kanpora. Garage. Sartzeko	240.400 €

LARRAGEST
EIBAR

Bidebarrieta 12, behea
Tel. 690 61 07 15

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Abontza	2 log., egong., suk., kom. Traster. Igog. Kalef. Elbarriendako sarb.	Galdetu
EIBAR	Mekola	4 log., egong., suk., 2 kom. 35m ² jardinarekin. Trasteroa	45.000.000
EIBAR	Santaines	3 log., egong., suk., kom. Ganbara. Kalef. Igog. Argitsua. 5. solairua	37.000.000
EIBAR	Santaines	3 log., egong., suk., kom. Igogailua. Kalef. Eguzkitsua.	41.400.000
EIBAR	R. Galdos	Apartamentua. Guztiz jantzita. Elbarriendako sarbidea	27.500.000
EIBAR	R. Galdos	3 log., egong., 2 kom. Igog. Kalef. Sartzeko moduan	Galdetu
EIBAR	Sautxi	Etxe berriak, trastero eta garaje birekin.	Galdetu
EIBAR	F. Calbeton	Berria. 2 log., egong., suk., 2 kom., bestidorea.	Galdetu
EIBAR	Urkizu dorreak	3 log., egong., suk., 2 kom. Balkoia. Kalef. Igog. Eguzki.	47.600.000
EIBAR	San Juan	4 log., egong., suk., 2 kom., Igog. Elbarrien. sarb. Altua	56.900.000
EIBAR	San Kristobal	Apartamentu polita. Berriztuta. Jantzita.	25.900.000
EIBAR	Karmen	Duplex. 115 m ² . Oso egoera ona. Garajea 25 m ² (behean)	Galdetu
ALESANCO (Errioxa)	2-3 logelako etxe berriak, garaje itxia eta trasteroarekin		19.900.000tik aurrera

**IBAI-ONDO.
EIBAR**

**Errebal, 6 behea
Tel. 943 20 12 13**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Urki	Etxebizitza eraiki berriak, prezio onean.	Galdetu
EIBAR	Txaltxa-Zelai	3 log., egong., suk., 2 kom. Igog. Garaje sarbide zuzen. Zoragar.	Galdetu
EIBAR	Jardiñeta	Hainbat tamainu eta prezioko etxebizitzak	Galdetu
EIBAR	J. Etxeberria	2 log., egong handia, suk-jang, 2 komun. Kalef. Igog. Eguzki. Sartzeko. <u>Aukera zorag.</u>	Galdetu
EIBAR	Karmen	5 log., egong. handia, suk, 2 kom. Berrizteko. Zoragarria	Galdetu
EIBAR	Urkizu pasealekua	3 log., egong., suk., 2 kom. Kalefak. Igogai. Garajea. Sartzeko.	Galdetu
EIBAR	Legarre Behea	2 log., egong., suk., kom. Terraza handia. Kalef. Igog. Eguzki. Sartzeko. Polita	Galdetu
EIBAR	Iparragirre	3 log., egong., suk., kom. Eguzki. Kanpora. Sartzeko. Zoragar. Prezio onean	
EIBAR	P. Etxeberria	3 log., egong., suk., kom. Igogailua. Bistak. Eguzkitsua. Sartzeko	Galdetu
EIBAR	T. Etxebarria	Atiko polita. 3 log., egong., suk., kom. Igog.	Galdetu
EIBAR	Urkizu pasealekua	3 log., egong., estudioa, suk., 2 kom. Igog. Jantzita. Sartzeko. Zorag	Galdetu
EIBAR	Errebal	3 log., egong., suk., kom. Igogailua. Berrizteko. Aukera asko.	Galdetu
EIBAR	E. Garate	2 log., egong., suk., kom. Igogailua. Sartzeko.	Galdetu
EIBAR	Karmen	3 log., egong., suk., kom. Terraza. Igogailua. Aukera asko.	Galdetu
EIBAR	Ubitxa	2 log., egong., suk., kom. Igogailu. Aukera asko	Galdetu
EIBAR	Ibarkurutze	2 log., egong. handia, suk., kom. Kalef. Igog. Eguzki. Sartzeko. Polita	Galdetu
EIBAR	Errekatxu	Apartamen. 1 log, egong., suk., kom. Lehio handiak. Sartzeko. Estrenatzeko.	Galdetu
EIBAR	F. Martin Mallea	3 log., egong., suk., kom. Ganbara goian duplexa egiteko moduan	Galdetu
EIBAR	Santaiñes	3 log., egong., suk-jang., kom.. Kalef. Igog. Kanpora. Eguzkitsu. Zoragarri.	Galdetu
EIBAR	T. Etxebarria	3 log., egong., suk., kom. Despentsa. Kalef. Eguzkitsua. Sartzeko	Galdetu
EIBAR	Saratsuegi	2 log., egong., suk., 2 kom. Kalef. Jantzita. Sarbide zuzeneko garajea. Polit.	Galdetu
EIBAR	P. Arosa	3 log., egong. handia, suk., kom. Despentsa. Eguzkitsu. Sartzeko. Polita.	Galdetu
	Pabilioiak	Tamainu eta prezio askotakoak.	Galdetu
DEBA	4 solairuko adosatua.	4 log., egong., suk., 3 kom. Atikoa, garajea, txokoa. Kalefak. Sartzeko.	Galdetu
SORALUZE	Buhardila.	2 log., egong., suk., kom. Oso ondo kokatua. Aukera.	Galdetu
ALTZOLA	Duplexa.	3 log., egong.-jang. handia, suk., 2 kom. Guztiz jantzia. Ia berria.	Galdetu
POLARIS WORLD	APARTAMENTUAK, DUPLEXAK, TXALETAK... ERAIKI BERRIAK. AUKERA HANDIAK. PROMOTORA PREZIOA.		



...eta kitto! eta Drogeteniturri aldizkarien INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

AUKERA		San Agustin, 1	
EIBAR		www. valenciaga.es	Tel. 943 20 83 16
HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Erdialdea	Eraikin berria. 75 m ² . Estrenatzeko. Igog. Kalef.	Galdetu
EIBAR	Erdialdea	Eraikin berria. Apartam. Log. 1, egong-sukald., kom. Trast (11m ²). Kalef. Bikaina	193.500 €
EIBAR	Erdialdea	Eraikin berria. 3 log., egong.-jang., suk., 2 kom. Ezinhobea. Garajea aukeran	Galdetu
EIBAR	Erdialdea	3 log., egong.-jang., suk.-jang., kom, 2 bainu. Kalef. Estudio bihurtzeko trasteroa. Igog. Sartzeko	Galdetu
EIBAR	Erdialdea	100 m ² . Altua. Bistak. Ganbara. Berrizteko.	Galdetu
EIBAR	Erdialdea	120 m ² . Berrizteko. Ganbara. Kalefak. Igog.	Galdetu
EIBAR	Ipurua	2 log., egong., sukal., kom. Kalef. Estrenatzeko.	168.000 €
EIBAR	Ipuruako dorreak	Altua. 90 m ² . Hegoalde-ekialdera. Trast. Kalef. Igog. Garajea	Galdetu
EIBAR	J.A. Mogel	3 log., egong-suk., kom. Ganbara. Kalef. Sartzeko	Galdetu
EIBAR	Matsaria	3 log., egong., sukal., kom. Sartzeko	120.200 €
EIBAR	Txaltxa-Zelai	2 log., egong., suk., kom. Berrizteko	Galdetu
EIBAR	Amaña	2 log., egong., suk., kom. Igog. Ganbara. Sartzeko	162.300 €
EIBAR	Legarre	3 log., egong-sukald., kom. Kalef. Estrenatzeko	200.200 €
EIBAR	Legarre	2 log., egong., suk., kom. Igog. Ganbara. Terraza (14m ²). Ezinhobea	Galdetu
EIBAR	Urki	2 log., egong., suk., kom. Trasteroa. Sartzeko	168.000 €
EIBAR	Urki	3 log., egong-suk., kom. Ganbara. Kalef. Kanpora. Sartzeko	Galdetu
EIBAR	P. Etxeberria	Eraikin berriak. 2/3 logela (246.200tik aurr era). Duplex, 4 log, terraza	Galdetu
EIBAR	Arragueta	2 log., egong., suk., kom. Kalef. Igog. Ezinhobea	255.400 €
EIBAR	Urkizu	3 log., egong.-jang., suk., 2 kom. Kalef. Igog. Garaje aukeran. Zoragarri	299.000 €
EIBAR	Barrena	3 log., egong.-jang., suk., 2 kom. Kalef. Igog. Hegoaldera. Ezinhob.	269.000 €
MENDARO		Eraikin berria. Giltzak eskura (195.500tik aurr era). Sukalde ekipatuak eta goi mailako materiala	Galdetu
SORALUZE	Rabal	Eraikin berriak. 2 log., egong.-jang-suk., kom. Suk. ekipat. Jantzita	Galdetu
ELGETA		Baserri zoragarria. 2 solairu + estalkipekoa. 10.000 m ² ko terrenoa. Bistak	Galdetu
ELGOIBAR		Baserri zoragarria. 180 m ² plantan + 180 m ² estalkipean. 16.000 m ² ko terrenoa.	Galdetu
ELGOIBAR	Urasandi	3 log., egong., suk., bainug., kom. Ganb. Garajea aukeran. Sartzeko. Bistak	217.600 €
ELGOIBAR	Basarte	80 m ² . Ezinhobea. Jantzita. Garaje handia.	Galdetu
ELGOIBAR	Santa Klara	6 etxe eraikitzen. 2 eta 3 log. Duplex terrazarekin. Garaje eta trasteroak.	Galdetu



...eta kitto! eta Drogeteniturri aldizkarien INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

JUARISTI Inmobiliaria.		Arragueta 2-bis B	
EIBAR	R. JUARISTI API	Tel. 943 20 08 60	
HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Ipurua dorrea	Etxebizitza handia. Garajea eta trasteroa.	Galdetu
EIBAR	Pagaegi	3 eta 4 logelako etxe handiak.	210.354 €tik aurrera
EIBAR	Errebal	3 log., egong., suk., bainug. eta kom. Balkoia. Berriztua.	Galdetu
EIBAR	Juan Gisasola	4 log., egong., suk., kom. Despentsa.	Galdetu
EIBAR	Jardiñeta	Pisuak: 2 log., egong., suk., kom. Despentsa	Galdetu
EIBAR	Ipurua/Urki/Amaña	Apartamentuak. Estrenatzeko	167.000 €tik aurrera
EIBAR	J. Etxeberria	3/4 logela, egongela-jangela, sukaldea, 2 komun.	Galdetu
EIBAR	Santaiñes	Kanpora begira. Eguzkitsuak. Igogailua.	Galdetu
EIBAR	Barakaldo/B.Eder/Muzategi	Apartamentuak. Estrenatzeko	150.253 €tik aurrera
EIBAR	Legarre	3 log., egong., suk., kom. Ganbara. Igog.	Galdetu
EIBAR	T. Etxebarria	Altua. 5 logela, bainugela, komuna. Igogailua.	Galdetu
EIBAR	Errekatxu	2/3 log. Berriztuta eta berrizteke.	159.268 €tik aurrera
EIBAR	Urkizuko dorreak	3 log., egong., suk., 2 kom. Balkoia, eskegilekua	Galdetu
EIBAR	Barrena	Pisuak. 2/3 logelakoak.	Galdetu
EIBAR	Paziano Arosa	3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Berriztua altzariekin.	Galdetu
EIBAR	Urtzaile	3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Bittor Sarasketa	Apartamentua eta pisua: 5 log., egong., suk., kom.	Galdetu
EIBAR	Errebal	Apartamentuak/pisuak eraikitzen. Garaj. Traster.	Galdetu
EIBAR	Iparragirre	3 log., egong., suk., kom. Terraza (36 m ²).	Galdetu
EIBAR	Arragueta	Hainbat tamainako etxeak.	150.253 €tik aurrera
EIBAR	Amaña	2/3 log., egong., suk., kom. Despent. Balkoi. Berrizt.	Galdetu
EIBAR	Bidebarrieta	3/4 gelako pisu handiak. Igog.	Galdetu
EIBAR	Armagin/Urki	3 log., egong., suk., kom. Ganbara. Igogailua.	Galdetu
EIBAR	Karmen	Duplexa. 3 logela, 2 komun. Polita	Galdetu
EIBAR	Barakaldo	3 log., egong., suk., kom.	138.232 €
EIBAR	Estaziño	Pisu handia. Ganbara. Kalef. Igog.	Galdetu
EIBAR	Erdialdea	Lokalak salgai eta alokairuan	Galdetu



...eta kitto! eta Drogeteniturri aldizkarien
INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

**GARMENDIA
 EIBAR**

**San Juan, 7 behea
 Tel. 943 20 34 13**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Egigurentarren	3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta garajea aukeran.	Galdetu
EIBAR	Amañako dorreak	3 logela, sukalde-egongela, komuna. Ganbara. Berriztua.	Galdetu
EIBAR	Amaña	3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Ganbara. Berriztua.	Galdetu
EIBAR	Urkizuko dorreak	3 log., egong., suk., 2 kom. Garajea aukeran.	Galdetu
EIBAR	Erdialdea	2 log., egong., suk., kom. Ganbara. Berriztua.	Galdetu
EIBAR	F. Calbeton	4 logela, egongela, sukaldea, 3 komun.	Galdetu

dp donpiso
 FIDATU ZAITEZ PROFESIONALETAZ BAKARRIK
Zure etxea saltzeko modurik azkar, errez eta eraginkorra
 DONPISOK BAKARRIK ESKAINIKO DIZKIZU ZURI EGOKITUTAKO KONPONBIDEAK
Eibar, Errebal, 23 behea donpiso_eibar@telefonica.net
Tel: 943 82 05 10 Faxa: 943 20 81 81

JULEN
INMOBILIARIA

- SALEROSKETAK
- TRASPASOAK
- TASAZIOAK
- ALOKAIRUAK

San Juan 11, behea Tel. 943 20 16 66
 20600 EIBAR Faxa. 943 70 15 26

Irabe
 Gestión Inmobiliaria, S.L.

- Salmenta kontratuak
- Alokairuak
- Traspasoak

Jose Antonio Cisasola, 1 - behea
 Telf. 943 20 06 90 Faxa. 943 20 06 96

HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA

Errebal, 12 - behea Tel. 943 820 041
 20600 EIBAR Faxa. 943 203 333
 www.inmoarregi.com Mobila. 656 766 344

Salerosketak
 Traspasoak
 Tasazioak
 Alokairuak

Errebal 19
943 70 16 57
 Faxa. 943 70 07 51

Carro Vega
INMOBILIARIA

ETXE K
 ZUR SKU
 t kt r t n tturr

Hurrengo gehigarrian agertzeko deitu:
943 20 67 76



Etxebizitzaren erosketa pausuz pausu

Etxebizitza erostea, duda barik, gure bizitzetako inbertsiorik handiena izango da. Horregatik, erabakia ezin daiteke berehalakoan hartu eta ezertan hasi baino lehen, gaiaren inguruan informazio zabala eskuratzea gomendatzen da. Jarraian, etxebizitza erosteko orduan kontsumitzaileen elkarteek ematen dituzten hainbat aholku laburbildu ditugu, zuen erosketa ahalik eta erosoan eta seguruen izan dadin

ETXEBIZITZA EROSI AURRETIK...

Zuk nahi duzun etxebizitza topatzea da aurreneko pausoa. Horretarako, lehenik eta behin merkatuan dagoen eskaintza mugatu beharko duzu; bilaketa etxebizitza mota bakarrean zentratu. Horretarako, honakoak eduki kontuan:

- *Daukazun diru kopurua:*

Etxebizitzarako aurrezki konturik daukazu? Aurretik beste etxerik daukazu eta hori saldu behar duzu? Zenbat diru daukazu? Eta zenbateraino zorpetu zaitezke?

- *Zelako etxebizitza nahi duzun:*

Bizitzeko etxea izango da ala bigarren etxebizitza? Berria ala erabilitakoa nahi duzu? Non? Zenbat metrokoa? Zelako kalitatekoa?

- *Norengana joko duzun:*

Babestutako etxebizitza nahi duzu? Kooperatiba batekin bat egin behar duzu? Bitartekariekin jardungo duzu ala nahiago duzu zuk zeuk egitea egin beharrekoak?

Oinarritzko galdera horien erantzuna argi daukazunean eta etxebizitzak ikusten hasten zarenean begiak ondo

zabaldtu eta den-dena ondo begiratu, gerora ezusterik ez izateko.

ETXEBIZITZA EROSTEAN

Erosketa egiten deneko unean oso garrantzitsua da gerta daitezkeen iruzurraren aurrean ondo babestuta sentitzea. Horregatik, erosketa segurua bermatzeko gakoak ematen dizkizuegu jarraian.

Bigarren eskuko etxebizitza erostean hainbat puntu argitu behar dira. Horretarako, hainbat tokitara joan beharko duzu, informazio erabilgarri hori eskuratzeko.

- *Jabetzaren erregistroan konprobatu beharrekoak:*

Etxebizitza zuri saldu nahi dizunaren izenean dagoela.

Etxebizitza dagoen tokiak, azalera eta bestelako ezaugarriek errealitatearekin bat egiten dutela.

Komunitate-gastuak jabeak esan dizkizunak direla.

Etxebizitzak ez dauzkala bestelako kargak, ez dagoela alokatuta, eta bere erabilera ez dagoela dibortzio prozesuan dagoen beste bikotekide baten esku.

Komunitatearen estatutuak errepasatu, zure eskubide eta obligazioak ezagutzeko.

Salmenta ez bada oso azkar egin behar, etxebizitzari buruzko informazio iraunkor zertifikatua eska dezakezu.

- Komunitatearen administratzailearekin:

Saltzaileak komunitate gastuak eguneratuta dauzkan konprobatu.

Etxebizitzaren instalakuntzak ondo ala hondatuta dauden ikusi.

- Udaletxean:

Higiezinen gaineko zerga (kontribuzioa) ordainduta dagoen ikusi. Saltzaileari ordainagiriaren kopia eskatu diezaiokezu.

- Bankuan:

Etxebizitza hipoteka batekin grabatua badago, aukera bi daukazu. Batetik, saltzaileari Notario aurrean hipoteka bertan behera lagatzen duen dokumentua sinatzeko eskatu diezaiokezu. Edo, nahiago izanez gero, hipoteka zure gain hartu dezakezu, subrogazio bitartez zeurea eginez. Hipoteka kontratatu zenekeko termino guztiak dakizkizunean, etxebizitzaren prezioari hipotekaren inporte osoa deskontatu behar diozu.

- Eskriturak:

Bazenekien etxebizitza eskrituratzea

ez dela derrigorrezkoa? Hala ere, eskriturak hainbat abantaila ematen dituzte. Hasteko, hipoteka-mailegua eskatu nahi baduzu zure etxebizitza berria berme gisa erabilita, Jabetzaren Erregistroan agertu behar da etxea. Eta etxea erregistratu ahal izateko, salmenta kontratu pribatua eskritura publikora igotzea beharrezkoa da. Zure etxebizitza eskrituratu eta erregistratu ostean, etxebizitza zurea dela gauza segurua da. Beste inork ezingo du erreklamatu. Gainera, kontratua lege-barruan dagoela ziurtatuta gertatzen da.

Zer gerta daiteke eskriturarik ez badut egiten eta etxebizitzaren erosketan erregistratzen badut? Salmenta kontratu pribatua baliozkoa izateko ez da derrigorrezkoa etxea eskrituratzea edo erregistratzea. Hala ere, bai saltzaileak eta baita erosleak ere, kontatu pribatua eskritura publikoaren mailara igotzea eska dezakete, eta beste aldeak ezin dio horri uko egin.

Kontratu pribatua ez baduzu eskrituratzen eta etxebizitzaren jabetza erregistratzen baduzu, honakoak eduki konputan:

Ezin izango duzu mailegua eskatu etxebizitza berme gisa erabilita.

Salmenta kontratuaren izatea inpugnatua izan daiteke.

Saltzaileak kontratua sinatzeko duen ahalmenaren inguruko bermerik ez daukazu.

Erosi duzun etxebizitza zuk jakin bari-ko kargak dauzkala aurki dezakezu (hipotekak, enbargoak...).

Etxebizitzaren jabetzaren inguruko segurtasun osorik ez daukazu.

Erositako etxea transmititzeko orduan arazoak ager daitezke.

ETXEBIZITZA EROSI ETA GERO

Erosi duzun etxebizitzan bizi ahal izateko hainbat pauso ematea falta da oraindik: besteak beste, bizi ahal izateko zerbitzuak altan eman behar dira.

Etxea berria bada, lehenengo okupazioarako lizentzia behar duzu. Promotoreak berak emango dizu, zuzenean edo erosketan zuzendu duen bitartekariaren bitartez.

Etxea bigarren eskukoa bada, berriz, ura, gasa, elektrizitatea, telefonoa... altan eman beharko dituzu. Horrez gain, etxean konponketak egin behar badituzu, udaletxera joan eta han informatuko zaituzte obra bakoitzerako beharrezkoak diren lizentzien inguruan.



...taillarrera

Programaren harrera ona

Mekanizatu Bidezko Ekoizpena, Mekanizatua, Ekipo Industrialen Mantenimendua, Ekipo Industrialen Mantenimendua, eta Kontrol eta Erregulazio Automatikoetako Sistema ikasketak egiten dituzten ikasleek hartzen dute parte ekimen honetan. Programa hau jasotzen dituzten enpresak, berriz, Tekniker, Jaz Zubiaurre, Alfa, Talleres Imag, Engranajes Ureta, Integi, Zflemforder TVA, Engranajes Grindel, Mancisor, HR Hidraulic, Danobat, Gyn Ayra Cerdan eta Pierburg dira.

Programak harrera ona izan du enpresen artean, horrela, Armeria Eskolako ikasle gehiago hartzeko interesa



Hainbat espezialitateko 22 ikasle dihardute eskualdeko 13 enpresetan ikasketak lanarekin uztartzen.

erakutsi dute enpresek. Gainera, eskualdeko beste 12 enpresarekin kontaktuan jarri dira Armeriakoak, hauen esanetan, "langile kualifikatuak lortzeko aukera ezinhobe" delako. Horrez gain, Armeriakoek diotenez, "ikasleak enpresaren beharretara egokitutako formakuntza jasotzen ari diren bermea dute", beraz, etorkizuneko profesional hauetan interesatzen zaizkien formakuntza alorretan eragina izatea errazten die, etorkizunean lanpostu horretara egokitutako langile bat edukitzeko aukera izanik.

Jaz Zubiaurrekoak "pozik"

Jaz Zubiaurre da programa honetan parte hartzen duen enpresetariko bat. Inigo Una-

muno arduratzen da programa honetaz Jaz Zubiaurren eta bere iritziz, "oso esperientzia ona izaten ari da, oso pozik gaude eta ikasleak ere oso pozik ikusten ditugu". Enpresa eibartar honetan ikasle bi dabilta ikasketak eta lana uztartzen, eta hauek makina automatiko konplexuekin egiten dute lan bertan, makinak mantenduz, gauzak aldatuz eta abar. Unamunok dioenez, "ikasleek nota txarrak ateratzen badituzte edo ikasketetan txarto badabilta, Armeria Eskolarekin konpromisoa daukagu ikasle hauek gurekin egongo ez direla". Bestalde, Unamunok azpimarratzen du ikasle hauek beste langileek dituzten kondizio berberak ditzutela.



Elkar-ekintzak sendotu ditzagun

Saso gordinak bizi ditugu; albistegi, egunkari, irratsaio... eta kale berriketaldi orotan indarkeria eta biolentziaren inguruko berriak ditugu ahotan. Martxoan bertan dugu eta ezin aipatu gabe laga emakumeen aurkako indarkeriaren azaleratze nabarmena; adin gutxikoen arteko eraso eta harreman bortitzak ere egunerokoak bilaka zaizkigu; txiro eta erbesteko bizikide direnen aurkako mespretxu eta gupida eza ere zerrenda agorgaitz honetan aurkitzen dira, besteak beste. Lehen mailako arazo soziala dugu egun bizikidetasun falta, tamalez: hezkuntza eta kultura urritasunaren hutsunea besterik ez dute begibistan jartzen. Azken hilabeteotan berriz ere desiratu gabeko haurdunaldien kopuruak gorantz egin omen du gazteen artean eta etenaldien inguruko legearen eztabaida ere Estatuko zenbait eskualdetan eztabaidagai izan da. Eta guk diogu: sexu hezkuntza bermatua eta sendotua, noizko? Noiz salatuko dugu instituzio eta agintari politikoekin utzikeria? Noiz jabetuko gara indarkeria mota horretaz? Noizko aspaldi lege jasota dagoena eguneroko errealitate ikastetxeetan? Behingoz, hezkuntzaren bidez gaindi dezakeguna legimitate osoz aldarrika dezagun, oinarritzakoa den sexu informazioa eta hezkuntza bermaturik edukitzea egokitzeko baitzaio ongizatearen gizarte deritzogun honi. Erroka hor dugu! Bitartean, gazteok, desioei jarraituz berreskura ditzazue harreman akontzeptiboak eta bizikidetzako sendotuko duten elkar-ekintzak.

**Ana Olarzun
Maitena Zubia**
(SEXOLOGOAK)

Usobiaga Armeria Eskolan

Eibarko Udalak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) barruan, euskararen motibazioa lantzeko saio batzuk antolatu ditu. Hoi protagonistak Patxi Usobiaga da, horrela, eskalatzaileak emanaldi bi eskainiko ditu programa honen barruan DHBko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleentzat.


Lehen saioa eguaztenez egin zen 11.30etan eta bigarrena astelehenean egingo da 11.45etan, biak Armeria Eskolan. Ekintza honen helburua gizarteko edozein gai edo pertsona erakargarri hartuta protagonistekin euskaraz aritzea da.



ARTXIBOA

Titín eta González Astelenan

Profesionalak 1. mailako binako-ko txapelketako partidurik erakar- garriena jokatu da domeka arratsaldean Astelena frontoian. Azken fase-



ko lehenengo jardunaldia izango da jo- koan asteburuan eta, Astelenako partidu nagusian, partidurik galdu gabe sailkatu den bikote bakarra (Gonzálezek eta Barriolak osatutakoa) eta txapela irabazteko faboritoenetakoa (Titinek eta Laskurainek osatzen dutena) izango dira nor baino nor. Errematatzaile bi, maila handiko atzelari birekin, tartean Haritz Laskurain soraluzetarra.

Jaialdiaren hasierako partiduan, Galartza V.ak eta Goñi III.ak Olazabalek eta Eulategi osatutako bikotea izango dute aurrean; eta jaialdiaren ondarrekoan Cabrerizo-Urberuaga eta Ongay-Arizmendi bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Ongay aurrelariak debuta egingo du profesionalen Eibar frontoian.

Liga erregularreko azken partidua errugbilarientzat

Eibar Hierros Anetxeko lehen taldea partidu baten faltan dago liga erregularra amaitzeko. Zapatuan Zaragozan jokatu du Fenixen aurka eta, honen ostean, igoera faserako zozketa itxaron beharko dute Daniel Nemanen mutilek. Zapatuko partiduari begira, ez aragoiarrek, ez eibartarrek ez dute ezer jokoan, beraz, ez ohiko jokalariek jokatzeko aukera izango dute.

Igoera faseko zozketan sartuko diren talde biren izenak ezagutzen dituzte jada eibartarrek. Hospitalet eta CD Hercesa (Guadalajara) zozketan izango dira armaginekin batera, eta oraindik erabakitzeko dago bestea CRAT Coruña edo Belenoz izango den.

Canfranc-era joateko izen-ematea zabalik

Klub Deportiboko eski komisioko mar- txoaren 8 eta 9an Canfranc-eko eski-estazio- ra joateko irteera antolatuta du. Villa Anayet hotelean hartuko dute ostatu bertara doazenak eta prezioa 60 eurokoa (mantenu erdia) izango da. Izena emateko, bestetik, Klubeko bulegoetatik pasa beharko da interesa duenak martitzen edo eguenean 19.30etatik 20.30etara.

Peña Guarako herri-martxa

Otsailaren 17an VII. Peña Guarako herri-martxa egin zen. Hamahiru eibartarrek hartu zuten parte bertan eta emaitza onena Naia Carballok lortu zuen 20 km-ko lasterketan 7. postuan amaituz. Maila

berean, bestetik, Leire Garatek 10. lekua lortu zuen.

20 km-ko gizonen lasterketan Roberto Izagirre 30.a izan zen, Jesus Telleria 38.a, Javier Carballo 47.a, Alberto Baglietto 54.a eta Luis M^a Garate 55.a. 7 km-ko

lehiaketan, bestetik, Ignacio Abanzabalegi 30.a eta Roberto Fernandez 35.a izan ziren.

Nesken 7 km-ko lasterketan Amaia Garate 21.a izan zen, Irati Fernandez 23.a, Ana Mallagarai 29.a eta Josefina Prieto 38.a.



Klub Deportiboko hamahiru ordezkari izan ziren Peña Guarako herri-martxan.



Kadeteen garaipena

Eibar Rugby Taldeko harrobiko taldeek, bestetik, neurketak jokatu zituzten asteburuan. Kadeteek Gernika jaso zuten zapatuan eta 22-12 gailendu zitzaizkien. Infantilek, bestalde, domekan Irunen Ordizia eta Ordizia B-ren aurka jokatu zuten partidu biak galdu zituzten.

Urkiko neskak

Urki Foball taldeko infantil mailako neskak denboraldi bikaina jarraitzen dute egiten eta, txapelketa fasean jokatu zuten lau partiduetan irabazita, lidergoan daude. Bergarari 2-0 irabazi eta gero, asteburuan Eskoriatzan jokatu dute.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai 4-6 behe, ezkerre ZERBITZU IRAUNKORRA: 943 20 10 95 Faxo: 943 20 25 64

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga BEHERAPENAK
Konfekzioak

943 20 22 33 Zuloagatarren, 7

Euskal Bizikleta hiru egunetako izango da aurten ere



Aurrerantzean bost egunetara zabaltzea baztertu ez duten arren, aurten iazkoari jarraituko diote Euskal Bizikletako antolatzaileek eta hiru egunetako proba egingo dute. Euskal Bizikleta ekainaren 6an hasi eta 8an amaituko da, hau da, barixakutik domekara jokatu da. Etapen amaierak Bakion, Agurainen eta, ohikoa denez, Arrateko gainean izango dira. Barixakuko etapak ere ohiko bidetik ekingo dio eta Untzagatik irtengo da eguerdi aldean Bizkaiarantz joateko; zapatuan

Bakiotik Agurainera joko dute txirrindulariek; eta azken etapen, betiko mendiz lepo osatutako lasterketa izango da jokoa, Arraten amaitzeko.

Parte hartzeari dagokionez, UCIren eta itzuli handietako antolatzaileen artean dagoen borroka bultzatuta, iaz etorri ez ziren talde indartsu batzuren presentzia izan dezakegu, ikusita -esaterako- Alberto Contador Tourraren azken irabazlearen Astaná taldeak ere ez duela argi aurten Frantziako proban parte hartuko duen.

Gimnasia erritmikako Euskal Ligako I. fasea Gasteizen

Bost ordezkari izango ditu Ipurua Gimnasia Erritmikoaren taldeak Gasteizen domekan jokatu den denboraldiko maila indibidualko lehenengo lehiaketan. Gasteizko San Andres kiroldegian izango dira Garazi Pablogorrán eta Mainer Jiménez senior mailan (sokarekin jardungo dute), Olatz Ibaibarriaga eta Olatz Laskurain juniorretan (soka eta aroa erabiliko dute) eta Onintze Pablogorrán (honek ere ariketa bi egingo ditu: esku librekoa eta sokarekin) infantiletan. Horko emaitzak apirilean eta maiatzean jokoan izango diren Espainiako txapelketetan parte hartzeko baliozgarriak izango dira.



Garazi Pablogorrán.

Urbateko igerilarien garaipenak

Aitzol Arrillagak (bizkarerako 50 metroak) eta Mainer Peralesek (100 metro estilotan) garaipenak lortu zituzten igeriketako Gipuzkoako ligako 4. jardunaldian. Urbat-Ur-kotronikeko beste igerilari batzuk ere igo ziren podiumera: Arrillaga 2.a izan zen 200 estilotan; eta Markel Alberdi 2.a 800 eta 100 libreetan. Bihar, Oñatiko igerilekuan, benjamin eta alebin mailakoen 5. jardunaldia jokatu da.

Herri Irratia Eibar

Loyola Media

90.7 Fm



Herri Irratia Donostia	94.8 Fm
Herri Irratia Leioa	122.4 Orm
Herri Irratia Eibar	99.8 Fm
Loyola Media Bilbao	90.7 Fm
Radio Álava	93.5 Fm
	98.0 Fm

Herri Irratia-Loyola Mediak

kazetariek eta komertzialak behar dituzten Eibarriko bere emisoran lan egiteko, Curriculunak ondorengo helbidera bidali daitezke:

Programazio berria:
Herri Irratia-Loyola Media
partekatzen 19/2004 Donostia

e-mail: curriculum@herri-irratia.com

Cuevas kros txapelketako Euskadiko azpitxapeldun

Asier Cuevas Eibar-ko atletak sasoi betean jarraitzen du eta domekan Amurrión erakustaldi berria egin zuen, aurreko asteburuan maratoiko Espainiako txapelketan urrezko domina eskuratu eta gero. Oraingoan 2. postuarekin konformatu behar izan zuen, azken 300 metroetan berarekin ihes egindako Dahbi El Miloudi Bizkaiko lizentzia duen marokoarrak esprintean

aurea hartu baitzion. Txapelketak 11 kilometro eta erdiko distantzia izan zuen eta Goierri Garaiko eibartarrak 37'17"ko denbora egin zuen, irabazleak baino bost segundo gehiago. Aurten goan nafarrek ez dute parte hartu txapelketa horretan, hainbat urteren ondoren txapelketa bi antolatzea erabaki baitute federazioek: Euskadikoa batetik eta Nafarroakoa bestetik.

Asteburuko auto lasterketak

Euskadiko Erregular-tasun Opena etapa bitan banatuko da aurten Jose Luis Egiluz Memorialean: biharkoak Derion izango ditu irteera eta helmuga eta etzikoak, bestalde, Trapagan hasiko da eta Derion amaitu. Escuderia Eibartik lau autok hartuko dute parte: Roland Holke eta Fdo. Beorlegi, Seat 127 batekin; Antonio Cancelo eta Jorge Beorlegi, Seat 124 batekin; Anton eta Iban

Beroiz aita-emeak, Seat 132 batekin; eta Xabier Redondo eta Iñaki Morales, BMW 318 batekin. German González kopilotoa ere bertan izango da. Gabiriako Rallysprintean, bestalde, hiru ordezkari izango ditu Escuderia Eibarrek: Iban Tarsicio eta Iñigo Peña (Ford Escort), David Ardions eta Sergio Porcel (Renault Clío) eta Maier Outeñogoitia eta Eneko Artetxe (VW Golf).

Bihurri bihar Berrizen

Eibarko aizkolariak bihar eguerdian ekingo dio Guinness marka ezartzeko saioari Berrizen. Egin beharreko lana metro bi eta erdiko perimetrotan enborra

moztea izango da, hori bai, esku bakarrarekin. Ikustea nahi duenak eguerdiko 12.30etan du hitzordua, Bizkaiko herri horretako kiroldegian. Zorte onena opa diogu.

Arrate-Teucro bihar 19.00etan Ipurua kiroldegian

Asobal Ligako bigarren itzuliko lehenengo garaipena lortzeko asmoz, zelairatuko da bihar arratsaldean Eibarko eskubaloi taldea. Azken asteburuan Naturhouse La Riojarekin 31-30 galdu eta gero, beharrezkoa du J.D. Arratek Teucro Enceri irabaztea, batez ere Europarako sailkapena emango liokeen gaur egungo 7. postuari eutsi nahi badio behintzat. Galziarrak, bestalde, sailkapeneko 13. postuan daude, 12 punturekin, hau da, eibartarrak baino bost puntu gutxiagorekin. Partidu horretarako, zalantzazkoa da



Malumbresek denboraldi bikaina dihardu egiten eta galziarren aurkako partiduan orain arteko mailari eutsi nahiko dio.

Dalivor Cutura eibartarren joko antolatzailearen parte hartzea, Logroñon epaileek zigortu zutelako. Stefanovic, bestalde, jokatzeko moduan egotea espero dute Arratekoek. Pontevedran jokaturako partiduan eibartarrak erraz nagusitu ziren.

Sevilla At. bisitatuko du Eibar KE-k etzi eguerdian

Eibar KE-k Sevilla Atletico-ren aurka jokatu du domekan 12.00etatik aurrea Sevillaren kirol instalazioetan. Javier Mandiolarren mutilek talde andaluziarraren aurka jokatu du joan den astean Malagaren, bigarren sailkatuaren, aurka bana berdindu ostean.

Eguaztenean, berriz, talde armaginak Osasunaren aurka lagunartekoa jokatu zuen Taxoarren. Golik gabeko berdinketarekin amaitu zen neurketa eta denboraldian zehar minutu gutxi izan dituzten jokalariek ari zirela aukera izan zuten.


Adeltasun bilera

Eibar KE-ko zuzendaritzak, eta Debagoiena eta Debabarrenako foball taldeek adeltasun bilera izan zuten martitzenean. Bileraren helburua Gipuzkoako Foball Federazioko hautagai zerrenda berriari iritziak elkar aldatzea zen. Amaika Bat, Ondarroako Aurrera, Eibartarrak, Elgoibar, Mutriku, Urki, Aloña Mendi, Antzuola, Aretxabaleta, Arizmendi eta Bergara taldeetako ordezkariak bildu ziren martitzenean. Datorren asteko eguaztenean berriz ere bilduko dira talde hauen ordezkariak.




Aroztegi berria Eibarren

Diproca Ateen erakusketa.
Etxe erreformatan 30 urtetik
gorako esperientzia duen enpresa.
Ateak, armairuak, oholtzak, etb.
Salmenta puntu ugari inguruko zonaldean.



ATEAK **Diproca** PUERTAS



Isasi, 17
-behea-

Tfnoa.
943 10 83 00

Faxa.
943 10 83 02

EIBAR

especialistas del Habitat
Diproca

Euskal
Herriak
independentzia



ABSTENTZIOA

Otsailak 29, barixakua

EUREKATEATRO
(ALBACETE)

Antzezleak: Luis Felpeto, Antonio Chamizo, Sardo Irisarri, Jeromo G. del Valle, Juan Carlos Castillejo, Laura Torregrosa, Rosa Mtnez.-Alcocer, Angel Monteagudo
Zuzendaritza: Claudio Hochman




La verdad sospechosa

Irudimenez, freskotasunez eta dibertsioz betetako antzezlan, benetan zaila interpretatzen.
 Bertsoak antzezleari jarrera eta prestaketa berezia eskatzen dio; eta ondo erabiltzen denean,



Martxak 1, zapatua eta 2, domeka

C.L.A. PEPE EIZAGA
(ERRIOXA)

Antzezleak: Margarita Marbán, Guillermo Orozco, Jesús Lumbresas, Ruth Fdez. de Terán, Pedro Farres...
Abesbatza: Asun Peña, Carmen García, Carolina Sánchez...
Orkestra: Sotto Voce
Zuzendari maisua: Ricardo Daniel Mtnez.
Zuzendaritza: Jose Antonio Toyas



Martxoak 3, astelehena eta 4, martitzena

PRODUCCIONES TEATRALES CONTEMPORANEAS
(MADRIL)

Antzezleak: Jorge Bosch, María Pujalte, Jorge Roelas, Eliazar Ortíz
Musika: Mariano Marín
Zuzendaritza: Tamzin Townsend

La tabernera del puerto

Pablo Sorozabalen zarzuela hau "genero handiaren" esanguratsu, arrakastatsu eta ederretarikoena da. Bartzelonako Tivoli antzokian estreinatu zen 1936an eta, Gerra Zibila amaitu ondoren, Madrilgo Zarzuela Antzokian 1940an. Kantari onak, orkestra eta abesbatza ederrak ikuskizun zoragarria osatzen dute, beste elementu guztiekin batera.

El Método Gronholm

Une berean testu irudimentsua, sarkina eta dibertigarria, antzezleei aukera ematen diena luzimendurako. Dozenaka hizkuntzetara itzuli den antzezlan.
 Muntaia hau izan zen estreinatu zen lehena eta, lau urtetan Madrilen egon ondoren, euren lehen bira amaitzekotan dira. Akzioa komediatik dra-

Martxoak 5, eguaztena

TXALO PRODUKZIOAK
(GIPUZKOA)

Antzezleak: Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Ramon Agirre, Itziar Ituño
Zuzendaritza: Carlos Zabala

Gronholm Metodoa


Goi mailako lanpostua eskuratu nahi duten lau pertsona dira antzezlanaren protagonistak. Laurak gela batean isolatuta daude eta hainbat motatako frogak gainditu behar dituzte, gehienak iraingarriak eta oso irudimentsuak, baina guztiak lehiakortasuna bultzatzen duten horietakoak. Printzipioak alde batera lagako dira, albokoak



Otsailaren
29tik
martxoaren
7rainoko
lanak

Bertso-ekitaldiak Kulturalen

Atzo arratsaldean bertso-saioa egin zen Kulturetabernan, gai librean jardun zuten Xabi Paia eta Uxue Alberdi bertsolariekin. Bihar, berriz, urteroko bertso-bazkaria egingo da Arrate Kultur Elkartearen lehenengo solairuan. Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariak gonbidatu dituzte 14.30etan hasiko den bazkaria (bazkarirako txartelak elkartearen idazkaritzan edo tabernan bertan eros daitezke). Bertsolaritzaren inguruko saio biak girotzeko, Jose Luis Irigoienek argazki erakusketa zabaldu zu-



JOSE LUIS IRIGOIEN

ten astelehenean Kulturetabernan. Argazkiak iazko saiokoak dira, Nahikari Gabilondo eta Amaia Agirre bertsolariei ateratakoak eta martxoaren 15era arte egongo dira ikusgai.

Baqué diseinu lehiaketa Eibarrera

Baqué kafe-etxeak azukre-poltzak apaintzeko diseinua aukeratzeko lehiaketan eibartarren marrazkiak nagusitu dira jokoan zeuden sari bietan: sari nagusia Joseba Aranzabal eta Mikel Trebiño eibartarrek Amaia Ajuriagerra gazteitzararekin batera egindako di-

seinuarentzat izan da. Hirurak arkitektoak dira, Bidark enpresan bazkide. Antolatzaileek umeentzat emandako saria, bestalde, Danel Errasti 7 urteko eibartarrak eskuratu du. Informazio zabalagoa aste honetako alean irakurtzeko moduan izango duzue.



LEIRE ITURBE

Cielito-ren musika antzerkiari egokituta

Eibarko XXXI. Antzerki Jardunaldiak martxan diren honetan, Cielito Musika Bandaren hurrengo kontzertua zarzuela eta antzerki-musikarekin osatutakoa izango da. Domekan, 12.30etatik aurrera, honako piezak eskainiko dituzte Coliseo antzokian: 'Black el Payaso' (martxa,

aukeraketa, Pablo Sorozabalena) eta 'La Gran Vía' (aukeraketa, Federico Chuecarena) zarzuela-programaren barruan eta 'L'Arlesienne' (Alphonse Daude, 2. suita, George Bizet) eta 'Peergynt' (Henrik Ibsen, Edvard Griegen musika) antzerki-musikari eskainitako programan.

Laburrak

UMEENTZAKO ANTZERKIA

XXXI. Nazioarteko Antzerki Jardunaldien programazioaren barruan, martxoaren 15ean umeentzako ikuskizuna eskainiko du Galitooon Producciones taldeak, Coliseoan. 'Golulá' ikuskizuna gaztekeraz izango da eta sarrerak 5 euro balio du.

UMEENDAKO ZINEA


Amaia Kultur Elkarteak asetero umeentzat eskaintzen dituen pelikulen emisioa martxoaren 16an amaituko da. Horrela, agur esango diote denboraldiari urrira arte. Martxoaren 2an, 9an eta 16an, baina, pelikula egongo da, 17.00etatik aurrera (2'80 euro). Amaia Kultur Aretoak 30 urtetik gora dihardu asteburuetan umeendako pelikulak ematen, oso harrera onarekin (bataz beste 190 bat haur joaten da saio bakoitzera).

IKASTAROAK KZGUNEAN

Hileroko moduan, informatikan lehenengo pausua eman edo hainbat gaitan trebatzeko aukera izango da Karmen kaleko Kzgunean. Ikastaroak doan dira eta han bertan edo, bestela, interneten kontsultatu daiteke martxorako eskaintza. Aste Santua dela-eta, martxoaren 17tik 26ra itxi egingo dute Kzgunea.

FADOAK ELGETAN

Ventos de Saudade taldeak Portugalgo fadoak eskainiko ditu bihar, zapatua, 22.30etatik aurrera Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Sarrerak salgai daude, 6 eurotan (bazkideentzat 4 eurotan).



foto

orain
Urki 17 an gaude

erreportajeak
ezkontzak

943 20 27 16
688 64 73 44

estudioa **JAUJA**



San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta 28
☎ 943 20 79 73



Zer ikasi bihar dozu datorren urtian?

Otsaila azterketa garaixa izan ohi da unibertsitarixentzat, eta unibertsitatera sartziar daren gaztiak be oin dabiz datozen urtietako ikasketak aukeratzeko. Erabaki hau hartzea, baña ez da askotan erreza izaten. Batzuk txikitxikittatik jakitzen dabe nausittan zer izan nahi daben, baña beste askok azken momenturarte zalantzan egoten dira.

Inoiz baño informaziño gehixau dakau: inguruko unibertsitatiek euren eskaintza erakusten deskue, ate irekixen egunetara joateko aukera dakau. Internet bidez hainbat datu lortzen dittugu... baña askotan lagundu baino hainbeste informaziñoik itto etten gaittu. Informaziño guzti hau, ondo sailkatuta eta mamittuta jasotzea da benetan gaur egun bihar douna.

Helburu hau lortze bidian UEUk **Iparrorratza** zerbitzua jarri dau martxan **Unibertsitate.net** atarixan topau zeinkiena. Atari honen helburua komunitate unibertsitarixo euskaldunarentzat erreferentziala izango dan gune birtuala sortzia da. Bertan irakasliek, ikasliek, ikertzailliek, gurasuek eta abarrek hainbat zerbitzu topauko dittuzte: ikasketa bilatzailla, ikerketarako tresnak, apunte eta materialen txokua, albistiak, blogak, ikaslien txokua eta otsailetik aurrera, ikasketa unibertsitarixuei buruzko orientaziño akademikua. Zerbitzu honen bittartez ikasliek, gurasuek eta interesatuta dauan edozeinek bere zalantzak biderau ahal izango dittu eta erantzun pertsonalizaua jasotzeko aukera izango dau Doako zerbitzua da, euskaraz eskaintzen dana eta on line. Ia lagungarrixa etten jatsuen. Erabili eta aukeraketa on!

Ane Sarasua
(UEUKO IDAZKARI NAGUSIA)

Bizet-en “Carmen” Coliseoan

San Petersburgoko opera-konpainia Eibarren, Coliseoan ikusteko aukera izango da apirilaren 11n, konpainiako kideek Espainian bira egiten dihardutela aprobetxatuta. 30 bat lagunenez osatutako konpainiak Bizet-en ‘Carmen’ opera ezaguna taularatuko du, funtzio bakarrean. Sarrera 20 eurotan ipiniko dute salgai, ohiko salmenta-bideari jarraituta (ikuskitun-eguna baino 15 egun aurretik, Servikutxa edo internet bitartez eta, bestela, martitzenean, 20.00etatik aurrera).



Bizet-en opera ezaguna apirilaren 11n ikusgai izango da Coliseoan. Funtzioa San Petersburgoko konpainiak eskainiko du.

Liburutegia itxita dago

Atzo itxi zuten Juan San Martin Liburutegia, handitze-lanen azken

faseari ekiteko: altzari berriak ipiniko dituzte eta fondo nahiz espazioen birrantolaketa egin-

go dute, egiteke geratzen diren beste batzuk amaitzeaz gain. Liburutegiko arduradunek lanak ahalik eta azkarren egiten ahaleginduko direla adierazi dute, baina, hala ere, hainbat astez liburutegia itxita egon beharko da. Azken itxieran egin zuten bezala, erabiltzaileek sei liburu maileguan eramateko aukera izango dute. Bestalde, gogoan izan Eibarko liburutegiko karnetak beste herrietako liburutegietan erabili daitekeela.



EKHI DELAR

Sostoa eta Martxoaren 8a

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, Sostoa abesbatzak kontzertua emango du Karmengo Amaren elizan (Karmelitetan) 17.45etan. Kontzertua hiru gairen inguruan antolatuta dute: Aste Santua (eliza-giroko musika, XV. mendekoa...), udaberria (Haydn, Mendelssohn, Mozart...) eta Martxoaren 8a (Isabel Laspiur pianoan lagunduta eta Mari Karmen Etxebarriak zuzenduta, abesbatzeko andrekin lotutako hainbat partitura abestuko dute). Kontzertuak 50 minutuko iraupena izango du.



AMATA JAIO



Zezenzaleen logotipo berria

Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkartek logotipo berria aukeratu berri du orain egun batzuk egin zuten urteko batzarrean: Nestor Perez Valenciaga arkitektu eibartarren disei-


nua izango da aurrerantzean elkartearen irudia. Gazte honek aurretik ere sari ugari eskuratu izan du berak diseinatutako kartel eta irudiekin, Eibarren bertan eta baita kanpoan ere.



LEIRE ITURBE

Txistularien kontzertua

Usartza Txistulari Bandak kontzertua eskalari zuen domekan Untzagan. Eguraldia lagun, jende asko animatu zen txistularien kontzertuan parte hartzera eta giro ederra egon zen. Txistularien hurrengo saioa martxoaren 9an izango da, Txirio-kale eta Ifar-kale inguruan egingo duten kalejira hain zuzen. Eta martxoaren 16an, berriz, Legarren ibiliko dira kalejiran.



Zeramika eta olioak Topalekuan

Mari Fran Ereñaren margoak eta Olga Gómezen zeramika-artelanak domekara arte egongo dira ikusgai Topalekuan. Erakusketa ohiko ordu-tegian egongo da zabalik: gaur arratsaldean, 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



EKHI BELAR

Artzaintza mintzagai Illunabarrian

Eguazten arratsaldean Fermin Zelaeta eta Joxe Mari Arretxea izan ziren ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan, Illunabarrian programaren barruan antolatutako saloan. Nafar biak Ameriketara artzai egon ziren, beste euskaldun asko bezala, eta euren esperientziaren berri jasotzeko aukera izan zuten hitzaldira etorri ziren guztiak.

Txalo produkzioen eskutik 'Gronholm metodoa' antzezlan egongo da martxoaren 5ean Coliseoan. Euskal antzerkigintzaren izen handienetakoek hartzen dute parte lan horretan, ekoizpenari plus bat emanez. Lanpostu bat lortzeko gorabeherak kontatzen dira lanean.



ITZIAR ITUÑO, AKTOREA: "Antzerkiak zerbait berezia dauka"

- Zertan datza 'Gronholm metodoa'?

Goi-mailako lanpostu baterako lan elkarrizketa bat da. Lau pertsonaia hurbiltzen dira bertara, lau exekutibo, hiru gizon eta emakume bat. Printzipioz, ez dago elkarrizketatzailerik, baina lau exekutiboek gutun bat jasotzen dute eta hor azaltzen zaie zertan datzaten froga horiek. Horrela, laurek frogak gainditu behar dituzte, baina libre dira nahi izanez gero gustora egon ezean alde egiteko. Nahiko froga 'kabroiak' dira eta, gainera, sator bat dago lauren artean. Horrela, mesfidati ibiliko dira eta bakoitzaren miseriak agerian jarriko dira.

- Aktoreen artean ere horrelako kasuak gertatzen dira?

Euskal Herrian ez hainbeste. Hemen ezagunak gara guztiak, beti dago baten bat beste munduko zerbait dela uste duena, baina gutxitan, hemen naturalitate osoz aritzen gara. Hala ere, kontatu didate Madrilen nabaritzen dela aldaketaren bat arlo honetan.

- Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Asier Hormazarekin batera egiten duzu lan antzezlan honetan. Euskal antzerkiak duen kartellik garrantzitsuena izan dalteke?

Ba ez dakit. Hiru aktore hauek artea egin dute eta hainbat sari jaso dituzte. Ni, berriz, osagai berria izango nintzateke. Garrantzitsuena? Nik uste dut aktore-maila polita duela antzezlanak, baina

istorioa da publikoa harrapatu behar duena. Guk ahal duguna egiten dugu (barreak).

- Hllabete eskas darolazue lan honekin. Nola joan da orainartekoa eta zelan helburu duzue?

Otsailaren 3an egin genuen antzezlan honen estreinua, baina honen aurretik hilabete bat egon ginen entseiuak egiten. Euskera hutsean egin da lana, eta eskerrak, batzuetan euskeraz eta gazteleraz egiten delako, eta horrek lan bikoitza suposatzen duelako. Estreinuaren egunean urduritasun kutsu bat geneukan, baina historia borobiltzen joan gara orain arte.

- Esaten denez, ez dago antzezlan bi berdin nahiz eta istorio berdina kontatu.

Ba bai. Ez dakit zergaitik, baina batzuetan igartzen da hori, nahiz eta istorio berdina landu, beti ez da berdin irtetzen.

- Zinea, telebista (Goenkalen, besteak beste) eta antzerkia egin dituzu. Non sentitzen zara erosoena?

Erreztasunaren aldetik telebista da erosoena, nahiko kontrolatuta daukadalako. Baina zine eta antzerkian gustorago aurkitzen naiz. Antzerkian adrenalina dosi handia hartzen duzu. Istorio bat da hor, momentu horretan, ordu horretan eta jende horren aurrean gertatzen dena. Momentuko gauza da eta edozer gauza gertatu daiteke. Horrek zerbait berezia dauka.

telefono jakingarriak

SOS deiak..... 112
 Pegora010
 Udaletxea943 70 84 00
 Portalea943 70 84 39
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25
 Mankomunitatea....943 70 07 99
 Debegesa943 82 01 10
 KIUB943 20 38 43
 Epaitegia943 03 34 00
 Iberdrola.....901 20 20 20
 Naturgas.....902 12 34 56
 DYA Larrialdia...943 46 46 22
 Gurutze Gorria....943 22 22 22
 Mendaro osp.....943 03 28 00
 Anbulategia.....943 03 25 00
 Torrekua943 03 26 50
 Errepideak.....902 11 20 88
 Ertzaintza943 53 17 00
 Eusko Tren.....902 54 32 10
 Pesa.....902 10 12 10
 Taxiak943 20 30 71
943 20 13 25
 Alkoholiko Anonimoak 629 14 18 74

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. DONOSTIA-EIBAR. Egutegia: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. BILBO-EIBAR. Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. EIBAR-GASTEIZ. Egutegia: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapata: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. GASTEIZ-EIBAR. Egutegia: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. EIBAR-IRUÑA. Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. IRUÑA-EIBAR. Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. EIBAR-ARRATE. Zapata: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. ARRATE-EIBAR. Zapata: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. EIBAR-ELGETA. Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. ELGETA-EIBAR. Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. ERMUA-MENDARO. Asteleheneretik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapata-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. MENDARO-ERMUA. Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiro. Zapata-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. BILBO-EIBAR. Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.18. EIBAR-DURANGO. Egutegia: + 22.18. EIBAR-DONOSTIA. Laneguna: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. DONOSTIA-EIBAR-ERMUA. Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

eguraldia

Euskal Meteorologia Agentziatik

LAINOAK ETA OSTARTEAK

BIHAR goizean hodeiak eta ostartean tartekatuko dira, euririk gabe; gehien joti, tantaren bat edo beste. Zeru ia garbi geratuko da arratsalderako. Maximoak 15 °C ingurukoak izango dira. **DOMEKARAKO** hodei gutxiago espero da eta tenperaturak gora egingo du.

29 barixakua

GASTE-REN BATZARRA

19.00.- GASTE Elkartean Batzar Orokorra. Portalean (ikastaro gelan).

DEPORREKO BATZARRA

20.00.- Eibarko Kulb Deportiboko Batzar Nagusia. Deporren.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- 'La verdad sospechosa' (Eurekatratro, Albacete). Coliseoan.

1 zapatua

BERTSO-BAZKARIA

14.30.- Bertso-bazkaria, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariekin. Arrate Kultur Elkartean (1. solairuan). Txarrelak tabernan salgai.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.00.- 'La tabernera del puerto' (C.L.A, Pepe Eizaga, Errioxa). Hezkuntza Esparruan.

2 domeka

KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseo antzokian.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.00.- 'La tabernera del puerto' (C.L.A, Pepe Eizaga, Errioxa). Hezkuntza Esparruan.

3 astelehena

HITZALDIA

11.45.- Euskeraren motibazioa lantzeko saioa. Patxi Usobiagaren hitzaldia, DBH-ko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleentzat. Armeria Eskolan.

IKASTEN

15.00.- Sendabelarren Foroa: 'Otsababa eta zoldabelar handia'. Portalean.

16.00.- Mermelada eta kontserba tailerra (1. taldea). Portalean.



ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- 'El Método Grönholm' (Producciones Teatrales Contemporáneas, Madrid). Coliseoan.

4 martitzena

IKASTEN

11.00/13.00.- Bideokonferentzia: 'Ura, XXI. mendeko petrolioa'. Hizlaria: Enrique Noain Zendoia. Hezkuntza Esparruan.

GURASOAK MARTXAN

18.30.- 'Gure seme-alaben autoestimua agresibitatearekin lotuta'. Mogel Isasin.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- 'El Método Grönholm' (Producciones Teatrales Contemporáneas, Madrid). Coliseoan.

5 eguaztena

GURASOAK MARTXAN

19.00.- Hitzaldia: 'Cómo prevenir el fracaso escolar'. Urkizu ikastetxean.

IKASTEN

19.30.- Kaleetan Kantuz. Entsaioa. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- 'Grönholm Metodoa' (Txalo Produkzioak, Gipuzkoa). Coliseoan.

6 eguena

IKASTEN

16.00.- Mermelada eta kontserba tailerra (2. taldea). Portalean.

EGO IBAR ZINE-KLUBA

17.30 eta 21.00.- 'Las aventuras amorosas del joven Molière'. Sarrera: euro 2. Hezkuntza Esparruan.

HITZALDIA

18.30.- Hitzaldia: 'Sexualitatea agerian'. Hizlaria: Hirusta. Martxoaren 8-ko programazioaren parte. Portalean.

erakusketak

Martxoaren 2ra arte

Jesika Martínez-Alcocer-en 'Interbentzioa aretoan' erakusketa (marrazkiak, akrilikoak, eskulturak). **Portalean.**

Mari Fran Ereña eta Olga Gómez-en pintura eta zeramika erakusketa. **Topalekuan.**

Martxoaren 15era arte

Jose Luis Irigolien-en argazki erakusketa (Nahikari Gabilondo eta Amaia Agirre). **Kultu tabernan.**

lehiaketak

ProiektEIBAR Proiektu Teknologikoen Lehiaketa
Epea: **Martxoaren 1era arte.**
Informazioa:
www.euiti.eibar.ehu.es

Makrolehiaketa
Epea: **Martxoaren 2ra arte.**
Informazioa:
Errota Gaztelekuan


XI. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa
Gaia: Aratosteak.
Epea: **Martxoaren 4ra arte.**
Informazioa: Arrate Kultur Elkarte.
www.eibar.org/blogak/kultu

XIV. Ipurterre Ipuin Lehiaketa
Epea: **Martxoaren 12ra arte.**
Informazioa: ...eta kitto!
Euskara Elkarte.
943-200918 telefonoa


II. Industriagintzari buruzko argazki lehiaketa
Gaia: Industriagintza.
Modalitatea: Euskari digitaal.
Epea: **Martxoaren 14ra arte.**
Informazioa: Armeriako Ikasle Ohien Elkarte.
943-203146 telefonoa.
aaa@armeriaeskola.com

VIII. Eskola-Bideo lehiaketa
Epea: **Martxoaren 30era arte.**
Informazioa: La Salle Azitain.
Telefonoa: 943121698.
lsallensae@planalfa.es

denborapasak



Aurkitu hemen Mandiola balleko 15 baserriren izenak.



farmaziak

29. barixakua
GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

1. zapatua
GOIZEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

2. domeka
GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

3. astelehena
GOIZEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

4. martitzena
GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

5. eguaztena
GOIZEZ **Las Heras** (Sostoaarren, 20)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

6. eguena
GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

7. barixakua
GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

hildakoak

- Fernando Luis Gómez Gutiérrez. 61 urte. 2008-II-14.
- Concepción Escudero Guerra. 95 urte. 2008-II-19.
- Jaime Carmona Martín. 73 urte. 2008-II-21.
- Juanita Lander Irisarri. 84 urte. 2008-II-23.
- M^a Luisa Noriega Noriega. 92 urte. 2008-II-23.
- Elvira Lasa González. 82 urte. 2008-II-26.

jaiotakoak


- Urko Landa Urñuela. 2008-II-13.
- Ane Arriola Esteibar. 2008-II-14.
- Libe Bastida Barrutia. 2008-II-15.
- Xabier Teruel Gil. 2008-II-15.
- Eneko Teruel Gil. 2008-II-15.
- Maialen Hita Garabal. 2008-II-16.
- Irene Lezea Artadi. 2008-II-17.
- Adrián Lorenzo Aguilar. 2008-II-18.
- Unax Hernández Becana. 2008-II-19.
- Eneko Renedo González. 2008-II-23.

diru-laguntzak

Hitzarmenak kultura erakundeekin
Epea: **Martxoaren 25era arte.**
Non: Pegoran.

UEU-ko matrikularako
Zenbatekoa: Matrikularen erdia.
Epea: **Malatzaren 30era arte.**
Non: Pegoran.

zinemazinema



untzaga
"Sweeney Todd"

ZUZENDARIA:
Tim Burton
AKTOREAK:
Johnny Depp, Helena Bonham C., Alan Rickman, Timothy Spall...

Benjamín Barkerrek hamabost urte eman ditu kartzelan, nahiz eta errugabea izan. Kartzelatik ihes egin eta Londrese-ra joan da. Sweeney Todd moduan, epaitu zuen gizonaren aurka egitea eta Lucy alaba bilatzea du helburu...



ego-ibar
"Las aventuras amorosas..."

ZUZENDARIA:
Lauren Tirard
AKTOREAK:
Romain Duris, Fabrice Luchini, Laura Morante, Edouard Baer...

22 urte baino ez zituenean, Jean-Baptiste Poquelin, "Moliere", aktorea zen. Oraindik ez zuen gero izango zuen arrakastarik eta kartzelara sartu eta urten zebilen. Historigileek badakite 13 urtean desagertuta egon zela, arrakasta lortu aurretik. Zertan?

Aurrekoaren SOLUZIOA

ikastaroak

UEUko Udaberriko Ikastaroak
Epea: **Martxoaren 14ra arte.**
Informazioa eta matrikula:
www.ueu.org edo
Markeskuan (943821426 telefono zenbakia).

Gurasoak Martxan
'Curso de habilidades para la vida', Hilario Garrudo psikologoarekin.
Norentzat: 12-16 urteko seme-alabak dituzten guraso edo arduradunentzat.
Noiz: **Apirilak 17 eta 24 eta maiatzak 6,** 18.00etan Portalean.
Matrikula: Doan. Pegoran.
Epea: **Apirilaren 11ra arte.**

TAILERRA
Menpekotasunari aurre egiteko prebentzio programa
Epea: **Martxoaren 25era arte.**
Non: Pegoran.

ETXEBIZITZAK

- Logela hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-394857.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 679-720405. Jorge.
- Elgoibarko Sigman pisua salgai. 60 m². Logela bi, egongela, sukalde handia, komuna eta balkoia. Berriztua, jantzita eta oso eguzkitsua. Tel. 636-274420.
- Eibar erdialdean pisua hartuko nuke alokairuan. 3 logela eta egongelarekin. Tel. 943-203924.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-061112.
- Debagoienan edo Debararren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 619-812347.
- Pisua salgai Legarrek dorreetan. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi, balkoia eta despentsa. Eguzkitsua eta dena kanpora begira. Tel. 653-733357.
- Soralezeko Rabal kalean pisua salgai. 64 m². Logela bi, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 658-339709.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 649-199638.
- Pisua salgai Egigurentarrenean. Logela bi, sukalde-jangela-egongela eta komuna. Trasteroa etxe barruan eta beste bat kanpoan. Jantzita. Egoera onean. Tel. 635-752986.
- Logela edo pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 679-568370.

LOKALAK

- Garaje irekia eta trasteroa salgai. Tel. 607-695054.
- Elgoibarko Oloso poligonoan lokala salgai. 200 m². Bulegoak ipintzeko prestatua. Tel. 639-313293.
- Jatetxea traspasoan jubilazioerengatik. Martxan eta oso egoera onean. Tel. 697-494283.
- Trasteroa erosi edo hartuko nuke alokairuan. Tel. 627-934675.

Iragarkiak ipintzeko: **943-200918 (Marisol).**

SALEROSKETAK

- Bizikleta salgai. Karbonozkoa. Goka Greenwich markakoa. 54 tailakoa. Urtebete du. 900 euro. Tel. 610-631842.
- Solarium tolesgarria salgai. Infragorriak eta MP3-arekin. Etxerako. Berria. 950 euro. Tel. 699-623821.
- Bizikleta salgai. Orbea Arin markakoa. Dura-ace taldearekin. 2005eko. 1.700 euro. Tel. 656-768944.
- Bikotearantzako kanping-eko koltxone-ta salgai. Erabili gabe. Puzgailua opari. Tel. 653-717875.
- Errepideko bizikleta salgai. Osagarri guztiak. Behin erabilia. Prezio onean. Tel. 653-717875.
- Mountain-bikea salgai. Orbea Orion markakoa. 24 tailakoa. 7 urteko aurrerakoendakoa. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 943-530746.

AUTOAK

- Renault Scenic salgai. Egoera onean eta extra guztiak. IAT pasatuta. 85.000 km. Tel. 607-230077.

BESTELAKOAK

- Ume mahaiaren tota aurkitu zen zapatu gauean San Andres parrokiaren parkean. Urdin kolorekoa. Tel. 679-358806.
- Urrezko pultsera aurkitu da Armagin kalean, Mari Carmen izenarekin. Tel. 943-208089.

*Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.***

LANA

- Neska eskaintzen da umeak zaindu edo publikitate banaketak egiteko. Tel. 664-651415.
- Mutila eskaintzen da kamarero edo sukaldari laguntzaile moduan. Tel. 666-054698.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-127137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-394857. Celia.
- Emakumea behar da umeak zaintzeko. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 943-700400.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 943-030650.
- Euskal musika rock popo elektronikoa proiekturako teklista behar da. Tendentzia ikusteko: www.myspace.com/nineuproiektua Tel. 665-732640.
- Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Maila guztietarako. Martitzen eta egunetan goizez. Tel. 645-728317 edo 943-201294.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 652-715908 edo 943-742201. Araceli.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-210838.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 616-230814.
- Margolari autonomoa behar da. Gutxienez urte biko esperientziarekin. Tel. 690-005800.
- Ileaipintzailea behar da jornada erdirako. Esperientziarekin. Tel. 637-302318.
- 28 urteko mutil arduratsua eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 625-917400.
- Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Ordutegia: 08.15-12.15. Tel. 667-656096.
- Neska eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 671-439914.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-095634 edo 943-530718.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-376387.
- Neska eskaintzen da nagusiak, gaixoak eta umeak zaintzeko. Tel. 943-200994 edo 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako, interna edo externa moduan. Tel. 699-813826.
- Emakumea eskaintzen da kamarera lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 610-902124.
- Mutila eskaintzen da makinak garbitzeko. Ikasketak eta esperientzia. Tel. 610-902124.
- Neska arduratsua eskaintzen da goizez garbiketa lanetarako. Tel. 665-726288.
- Gizona eskaintzen da elektrizista, iturgin eta peoi lanetarako. Tel. 605-363960 edo 943-530718.
- Neska eskaintzen da arratsalde garbiketa lanak egiteko orduka. Tel. 690-791689.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 626-865691.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa moduan. Tel. 606-658464.
- Erizain laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 663-301585.
- Neska eskaintzen da kamarera moduan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 663-301585.
- Emakume euskalduna behar da Eibarko denda batean lan egiteko. Tel. 676-193782.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Baita jostun lanetarako ere. Tel. 686-521598.
- Neska behar da asteburu eguerdian kamarera bezala eta sukalde lanak egiteko. Tel. 699-181472.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 649-368137.
- Neska eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 660-739555.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 630-404538.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 616-305808.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-869958.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan edo garbiketa lanak egiteko. Tel. 680-250527.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin edo kamarera moduan. Tel. 680-250527.
- Enpresa Zientzietan diplomatua laguntza klaseak ematen ditu etxetz-etxe. Edozein irakasgai. Tel. 647-232536.

...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, ANE Dávila, atzo 8 urte bete zenitullako, Gure etxeko printzesari maittasunez, Josu, aita txo eta amatxoren partez.



Zorionak, AINARA!! Gaur bertan zure 4. urtebetetza ospatuko dogu, aurten zure egunian gaiñera. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARI KARMEN, hillaren 26xan urtiak egin zenualako. Eibarko lagunentz partez: Barrutia, Urkia eta Zuloagatarraz.



Zorionak, ENEKO, domekan honezko urte bi egingo dittuzu-eta. Muxu haundi bat zure anaixaren eta gurasuen partez.



Zorionak, MAIALEN, eguaztenian hiru urte egin zenituan-eta. Muxu haundi bat aita txo, amama eta tion partez.

euskadin bizi naiz ni.
zu, non bizi zara?

Per capita errenta

(Europar Batasuna)



1. Luxenburgo 65.400 €
2. Irlanda 35.500 €
3. Herbehereak 31.000 €
4. **Euskadi 30.500 €**
5. Austria 30.200 €
6. Danimarka 29.700 €
7. Belgika 28.700 €
8. Suedia 28.200 €
9. Erresuma Batua 27.900 €
10. Finlandia 27.300 €
11. Alemania 26.700 €
12. Frantzia 26.500 €
13. Italia 24.300 €
14. **Espainiar Estatua 24.000 €**
15. Grezia 22.700 €
16. Txipre 21.900 €



AUTOMATION ORIA[®]





MÁQUINA HERRAMIENTA



- ◆ Makina Erreminten egokitze eta konponketa.
- ◆ Armairu elektrikoaren proiektu eta muntaketa.
- ◆ ZEATZ mahai zatitzaileen fabrikazioa.
- ◆ Makinen salerosketa.



www.zeatz.es



Itziar Poligono Industriala ,C2 Pabilioia Tel.: 943 199 131 - Fax.: 943 199 190
20829 ITZIAR - DEBA (GIPUZKOA)

E.mail.: comercial@automationoria.com

www.automationoria.com